

2021EKO MARTIAREN 24KO BATZAR NAGUSIAREN

BATZAR-EGUNKARIA (ITZULPENA)

DIARIO DE SESIONES DE LA SESIÓN PLENARIA DE

FECHA 24 DE MARZO DE 2021 (TRADUCCIÓN)

AURKIBIDEA

Orrialdea

- Batzarra hasi da.....	4
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako lehenengo puntua irakurri dau: “Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratetako eta erakunde autonomoetako lan-baldintzak hobetzea.”.....	4
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	4
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	7
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Escalante Mesón batzarkide jaunak hartu dau berbea	10
- Ahaldu Nagusi Rementeria Maiz jaunak hartu dau berbea	11
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bigarren puntua irakurri dau: “AP-68ren bide-sariaren ordainketea.”.....	13
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiko Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	13
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	15
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiko Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	18
- Azpiegituretarako eta Lurralde Garapenerako foru diputatu Pradales Gil jaunak hartu dau berbea.....	19
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hirugarren puntua irakurri dau: “Desgaitasuna daben pertsonen laguntzaileek garraio publikoan doan sartzeko eskubidea parekatzea.”	21
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	21
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea	23
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Cabornero Alor batzarkide andreak hartu dau berbea	24
- Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko foru diputatu Gómez Viar jaunak hartu dau berbea	25
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako seigarren puntua irakurri dau: “Pandemiak eragindako nekea.”	25

- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	26
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	26
- Talde Berezia-Partido Popular Bizkaiako Fernández Angulo batzarkide andreak hartu dau berbea.....	27
- Gizarte Ekintzako foru diputatu Murillo Corzo jaunak hartu dau berbea	27
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zazpigarren puntua irakurri dau: “VGP enpresa talde belgikarrak Sestaoko La Navaleko ontziolan parke logistikoa egitea.”	28
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	28
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	29
- EH Bildu taldeko Rahona Garay batzarkide jaunak hartu dau berbea	30
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	31
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako zortzigarren puntua irakurri dau: “Sestaoko Labe Garaia.”	31
- EH Bildu taldeko Montes Uña batzarkide jaunak hartu dau berbea	31
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	32
- EH Bildu taldeko Montes Uña batzarkide jaunak hartu dau berbea	32
- Euskara, Kultura eta Kiroleko foru diputatu Bilbao Ibarra andreak hartu dau berbea	33
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako bederatzigarren puntua irakurri dau: “La Navalen deuseztapenari buruzko balorazinoa.”	34
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	34
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	35
- Elkarrekin Bizkaia taldeko Benito Ziluaga batzarkide jaunak hartu dau berbea	36
- Ekonomia Sustatzeko foru diputatu Basurko Urkiri andreak hartu dau berbea	37
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamargarren puntua irakurri dau: “Europako Batzordeak hartu dauen erabagia, zeinen bidez	

Athletic Clubek, beste hiru futbol klubegaz batera, 2016. urtera arte bete behar izan eban zerga-araubidea Estatuko laguntzatza jo dan.”.....	37
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	37
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	38
- Elkarrekin Bizkaia taldeko De Madariaga Martín batzarkide andreak hartu dau berbea	38
- Ogasun eta Finantzen foru diputatu Iruarrizaga Artaraz jaunak hartu dau berbea	39
- BIGARREN IDAZKARI jaunak gai-zerrendako hamaikagarren puntua irakurri dau: “Jatako zaborteziaren inguruan dagoen Zabala erreka.”	39
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	40
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	40
- EH Bildu taldeko Arriola Alzola batzarkide andreak hartu dau berbea	41
- Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko foru diputatu Antxustegi Ziarda andreak hartu dau berbea	42
- Batzarra amaitu da.....	42

2021eko martiaren 24ko batzarra
goizeko 09:00etan hasi da.

Se inicia la sesión del 24 de marzo
de 2021 a las 09:00 horas.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Buenos días, señoras y señores, señor Diputado General, diputados/as, estimados/as junteros/as y a todas las personas que van a seguir esta Sesión Plenaria vía *streaming*, buenos días y bienvenidos/as.

Antes de abordar el Orden del Día, respecto a la delegación de voto, decir que el señor De Luis Zelaia ha delegado su voto al señor Lekerikabeaskoa Arrillaga y que el señor Andrade Aurrecoechea ha delegado su voto a la señora Fernández Angulo.

También decir que se han retirado los puntos 4 y 5 del Orden del Día, y, en este caso, quiero agradecer al grupo EH Bildu su deferencia con el Parlamento. Muchas gracias al grupo EH Bildu.

Dicho lo cual, el punto primero del Orden del Día es del siguiente tenor literal:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

1.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0000951](#))

Autor: Escalante Mesón, Israel (EB)

Asunto: La mejora de condiciones laborales en contratas y Organismos Autónomos de Diputación Foral de Bizkaia.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0000951](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (46A)

Expediente: ([11/B/18/0002075](#))

1.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0000951SE](#))

Egilea: Escalante Mesón, Israel (EB)

Gaia: Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratetako eta erakunde autonomoetako lan-baldintzak hobetzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0000951SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (46A)

Espedientea: ([11/B/18/0002075](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI**: Corresponde el turno al juntero que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señor Escalante Mesón, tiene la palabra.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Muchas gracias. Buenos días a todos/as.

Aurton, orain arte, 13 lagun hil dira Euskal Herrian euren bizibidea ateraten egozala. Aurreko Osoko Batzarrean aitatu genduan, baina kopuruak gora egin dau. Horrezaz ganera, hurrengo esaldia gogoratu gura dot: ezelako zalantza barik, behar dan moduko enplegu egonkorra eta soldata duinak Bizkaiko persona guztien bizi-kalidatea hobetzeko bermea dira. Gaur egun Aldundiko Gobernuari eusten deusien alderdiek sinatu eben gobernu-hitzarmenean aitatzten da hori.

Voy a empezar con el tema. ¿Qué es lo que planteamos? La Diputación ha suscrito distintos acuerdos para mejorar las condiciones laborales en Bizkaia. Habida cuenta de lo cual, nuestras preguntas serían las siguientes:

¿Se aplican las cláusulas sociales en los convenios y acuerdos que se firman? ¿Qué medidas de inspección laboral adopta la Diputación? ¿Cómo impulsa la Diputación la contratación de los/as productores/as y trabajadores/as locales?

Ikusiko dozuenez, aurkezten dogun itauna ahaldun nagusiarentzat zan, era guztietako, era bateko eta besteko sailletako gaiak jorrazten genduzala ikusten gendualako. Hori dala eta, gure ustetan, erantzun behar eban persona zan. Aldundiak ikusiko dau nork erantzun behar deusian honi, eta, horren arabera, gaiari zelako garrantzia emoten deusien ikusiko dala be uste dogu.

Edozelan be, oinarritzat jotzen doguzan hi hanka daukazan ekimen hau proponiduten dogu. Batetik, 2030eko Agendako Garapen Jasangarrirako Helburuetan, 8. helburuak jomuga bikotxa dauka: batetik, hazkuntza ekonomikoa; eta, bestetik, lan duina. Zer esanik ez, xedeen artean, eta azaldu genduan zer diran GJHen xedeak, 8.5.a dago, eta, horren arabera, hemendik 2030era erabateko enplegu emonkorra y lan duina lortu beharra dago danentzat. 8.8. xedearen arabera, arrisku bako lan-ingurune segurua sustatu beharra dago behargin guztientzat. 8B xedearen arabera, xedea zehaztu beharra dago. Mundu-mailakoa. Gazteen enpleguari begira. Askoz gehiago dagoz, baina ez naz luzatuko.

Gero, gogoratu egin gura dogu bigarren hanka hori honako hauxe izango litzatekeala: kalidateko enplegu egonkorra Aldundi honen legealdiko estrategiaren lehenengo ardatza da. Kontuan be hartu gura dogu. Azkenik, klausula sozialak geunkazan berbabide. 2017an, Aldundiak bere araudia aurkeztu eban, kontratazinoan bertan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste era bateko politika publikoei buruzkoak ezarteko. Holan, aldi berean Europako zuzentarauak transponiduten ebazan Sektore Publikoko Kontratuei buruzko zemendiaren 8ko 9/2017 Legea baino ez zan ekarten edo ailegetan Bizkaira.

Gure eretxiz, hobetu daitekean erara ezarri da erabagi hori. Berbarako, ez da garatu zelaz ezarten dan Aldundiagaz behin-behineko kontratuak egiten dabezan enpresetan, baina, batez be, turismoa erakarteko ekitaldiak garatzen dabezan enpresetan, adibidez, sektore horretako behargin askok edo bertan lan egin daben askok salatzen daben lez. Gure ustetan, legeko hutsunea emoten da lan-kontuetan; berbarako, atsedendien errespetua, uniforme edo erremintak emotea, larregizko lanaldiak, legezkoa danaren azpitik dagozan soldatak..., baina, era berean, laneko arriskuen prebentzinoan be emoten dira. Gaur, Aldundiaren beraren eta Aldunditik eratorren diran kontraten artean dagozan gune gris horreek jorraztu gura doguz, eta, jakina, norena da erantzunbeharra kasu horreetan? Horixe bera da gaur proponidu edo itandu gura genduan.

Sektore publikoan behin-behineko kontratazinoa legezko iruzur bihurtuta enplegu publikoaren egonkortasuna defendidutean, danontzako zerbitzu publiko gehiago eta hobeak defendiduten dira. Gure helburua horixe dala hartu beharra dago kontuan. Hori dala eta, proponiduten dogun hori kontuan hartuta, hurrengo galderak egiten genduzan eta gaur bertora dakargun besteren bat be bai.

Honako hauxe izango litzateke lehenengoa: zer mekanismo darabilz Aldundi honek klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste era bateko politika publikoei buruzkoak bete egiten dirana ziurtatzeko? Hau da, badakigu zeure gain hartu dozuna, baina hirugarren enpresakaz egiten dozuezan kontratatzen ezarten dira? Berbarako, erakunde autonomiadunetan edo Aldundiaren menpeko enpresetan ezarten ete dira? Hasteko, proponiduten genduan zalantzea da. Holan izango ez balitz edo izango balitz, zentzun horretan zehaztuta, jakin egin gura geunke konpromiso hori azpikontratautako enpresakaz gehiago zehaztea onartuko zeunkien. Gero, jakin egin gura geunke berrikuspenik edo programazinerik dagoan azpikontratazinoak gitxitzeko edo ekiditeko. Jakin badakigu, eta sindikatu guztiek dinoe, azpikontratazinoak lotune zuzena daukana lan-ezgonkortasunagaz eta laneko istripuakaz, azken batean. Horixe adierazoten dabe eta horixe bera adierazoten dau Laneko Ikuskaritzeak, berbarako.

Jakin egin gura geunke ezelako alkarlan-hitzarmenik dagoan Osalanegaz edo Laneko Ikuskaritzeagaz, laneko prebentzino, osasun eta higienerako baldintzak kontroletako eta laneko legeria beteteko, azpikontratazinoetan, batez be. Esate baterako, BIMEn hori emoten dan ala emoten ez dan. Laneko Ikuskaritzarik ete dago BIMEn, Aldundiaren dirulaguntzea jasoten dauala kontuan hartuta? Horixe emoten ete da Euskaldunako beharginen artean? Horixe bera da jakin gura doguna, zeozelan esatearren.

Jakin egin gura dogu Aldundi honek zer plan zehatz daukazan profesionalizazinoa eta lan-baldintzen hobekuntzea bultzatzeko, Bizkaiko sektore turistikoan, batez be. Gogoan daukat puntu hori apur bat aidean geratu zala turismoari buruz berba egin genduanean Gobernuko taldeakaz lortu genduan hitzarmenean. Orain, bertan proponiduten dogu barrero. Jakin egin gura geunke Aldundi honek neurriren bat hartu dauan ekitaldi handien ereduagaz, hain zuzen be, lotutako lan-ezgonkortasuneko baldintzak hobetzeko. Horrezaz ganera, gure ustetan, arlo publikoak hurreko ekoizpena nahiz konsumoa sustatzea zeinen ona eta beharrezkoa dan eta horrek tokiko ekonomian eragin zuzena daukala kontuan hartuta, jakin egin gura geunke zer hitzarmen dagozan edo zer plan dagozan tokian tokiko enpresa txiki eta ertainen produktuei eta zerbitzuei laguntzeko.

Gero, jakin egin gura genduan zer babes-neurri hartu dauzan Aldundi honek Aldundiaren kapitala daukien enpresetako beharginen artean, esan dodan lez, kasu batzuetan Aldundiaren jaubetza zuzenekoak ez diran arren bere menpean dagozanean; esate baterako, BEC edo Euskalduna...

Alde horretatik be, jakin egin gura genduan ezelako neurririk garatu dan persona horreek jagoteko, pandemian, batez be. Zelan geratu dira? ABEEEn dagoz edo eurakaitik arduratu da Aldundia? Beste leku batean birkokatu dauz? Jakin egin gura genduan, Estaduko Gobernuak hartu dauzan eta Eusko Jaurlaritzeak hartu ahal izan dauzan ABEEE-etako neurrien inguruan egin dauanetik haragoxe, Aldundiak berak persona horreek kontuan hartu dauzan ala ez.

Azkenik, eta amaitzear nago, jakin egin gura genduan Andren eta Gizonen Lansarien Bardintasunari buruzko urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretua egokitu dan, berbabide daukazan beharginei ezarten jaken.

Amaitzeko, jakin egin gura genduan 1698/2011 Errege Dekretua ezarten dan, Aldundiko beharginen erretiro-edatea aurreratzeko. Guri, adibidez, basogintzako beharginak jatorkuz gogora. Ez jaku ahazten. Ez dogu ikuspegia galtzen, badakigulako Aldundia ez dala Bizkaian dagoan enplegu guztiaren arduraduna. Halanda be, adibidea emon daike, eredugarria izan daiteke. Bere esku dago gaur egun daukagun legegintza-esparruan, kasu batzuetan gitxienekoetan egon beharrean, apurka-apurka aurrera egitea ahal danik eta gehieneko handienetarantz, nahiz eta gero legeriak apurka-apurka aurrera edo hobera egiten dauan.

Halanda ze, labur-labur esanda, bertan proponiduten dogunak Aldundiak enpleguaren kalidadeagaz daukan erantzunbeharraren hiru hankak hartzen dauz kontuan, hau da, GJHak, kalidadeko enpleguagaz daukan konpromisoa eta klausula sozialak. Batez be, jakin egin gura dogu klausula sozialak proponiduten diran kanpoko edo kanporatutako enpresakaz egindako hitzarmenetan. Bestetik, zelako ikuskaritzetan oinarritzen da Aldundia, enpleguaren kalidadea hobetzeko? Gero, azkenik, Aldundiak zelan sustatzen dauzan enplegua eta tokiko ekoizpena. Hori enpleguaren kalidadearen onerako da azken batean. Por el momento, por nuestra parte, esto es todo. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Escalante Mesón. En el turno de réplica, señor Diputado General, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias a todos/as. Señora Presidenta, así como a los/as junteros/as, buenos días.

Señor Escalante Mesón, para nosotros/as todo es importante, tanto si yo comparezco personalmente aquí, como si lo hace cualquier diputado/a. Todo tiene importancia, todo lo que ustedes plantean merece una respuesta, y, comparezca yo o no, es importante.

Centrándome en la interpelación, puesto que plantea muchas preguntas en la interpelación, y aquí también hay muchas, muchas preguntas y solo disponemos de 10 minutos en este momento, sí me gustaría hacer una pequeña aclaración previamente.

Zuk itaunean aitatu dozu guk Aldundi moduan 2017. urtean onartu genduala Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 2017ko zemendiaren 8ko Legea egokitzeko araudi betearazlea. Tira, nik neuk argitu egin gura dot Aldundiak 2017ko urtarrilean onartu ebala klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste era bateko politika publikoei buruzkoak ezarteko araudi betearazlea eta 2017ko urtarrilaren 24an sartu zala indarrean. Horren bidez, esan egin gura deusut derrigorrean bete beharreko, eta hori jakin egin beharra dago, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko edozein Lege baino 11 hilebete lehenago, 11 hilebete lehenago, Aldundiak araudi betearazlea ezarten ebala klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste era bateko politika publikoei buruzkoak egokitzeko gidaliburua eukan araudi betearazlea. Halanda ze, aurreratuta ginoiazan. Halanda be, ez naz hor geratzen, ez naz hor geratzen, arabere garrantzitsuagoa, Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko urrian, barriro dinot, 2013ko urrian onartu eban era guztietako kontratu publikoetan klausula sozialak ezarteko jarraibidea. 2013ko urrian.

Zer jazo zan? Estaduko Abogadutzeak jarraibide horren aurkako errekursoa aurkeztu ebala. Jarraibide horren aurkako errekursoa aurkeztu eban, eta epaitegietara eroan eben. Guk, barriz, arautu eta ezarri egin genduan, onartu eta ezarri egin genduan, eta, barriro dinot, holako klausula sozialak ezarten ziran instituzinoak egiten ebazan kontratu guztietan.

Jazoten dana da, ba, Estaduan, une haretan Alderdi Popularraren zuzendaritzapean, zuzendaritza politikopean egoan Estaduan, honako hauxe egin ebela: “nik neuk egiten ez badot, beste inork egin ez daiala”. Ortuzainaren txakurraren antzera, “nik jaten ez badot, ez dau inork jango”. Ulegarria danez, epaitegietara eroatean, ezeztu egin eben, ezeztu egin eben.

Honen bidez, esan egin gura deusuet geroago errazoia emon eutsiela Aldundi honi. Izan be, zuzentaraua 2014. urtekoa da, klausula sozialen jarraibide horreek baino urtebete geroagokoa, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen arauketa 2017ko zemendikoa da.

Aurretiazko gaiak argitutakoan, galderearen erantzuna jorratu gura neuke orain. Aldundi honek darabilzan mekanismoei buruz itantzen deustazu.

Tira, Aldundiak eta administrazio publiko guztiek darabilen mekanismo nagusia kontratazinorako plegua da; hain zuzen be, administrazioak, instituzioak ez eze, foru-erakunde guztiek be, egiten dauzan kontratu guztiak arautzen dauzan klausula administratibo partikularren plegua. Plegu horreek kontratuaren betearazpena arautzen dabe, baita alderdi guztiek, ulergarria danez, derrigorrean bete beharreko betearazpen-baldintza bereziak be.

Zein dira baldintza berezi horreek? Tira, ba, lan-eskubide guzti-guztiak erabat betetea; arautegiaren arabera desgaituei lana emon beharra; andren eta gizonen bardintasuna bultzatu beharra; estereotipo sexistak ekidin beharra; alderdiek euren gain hartutako hitzarmen kolektiboak erabat betetea, hitzarmen horreek lurraldekoak, sektorialak, era guztietako izan daitekezala kontuan hartuta; hitzarmen horreetan zehaztutako ordainsariak ordaindu beharra, azpikontratazinoan bertan be bai, ulertzeko modukoa danez; beharginak subrogau beharra, kasuan kasuko hitzarmenetan holan adierazoten danean; hizkuntzearen arloko betearazpen-baldintza bereziak be bai, daukaguzan hizkuntza koofizial biei be garrantzia emonda; ingurumena babesteko baldintzak be bai; eta ingurunea errespetetan daben ekoizpen-sistemak edo zerbitzuak sustatzea.

Dana dala, faktore horreek aurreikusi ez eze, darabilguzan pleguek, plegu horreek eurek, mekanismo horreek euren atalak be badaukiez zehaztapan horreek benetan beteteko, eta betearazpenaren jarraipen hori bikotxa da, bikotxa da. Batetik, kontratuaren arduradunak betebeharrak horreen, klausula horreen betearazpenaren jarraipena egiten dau, hau da, sail horrek edo erakunde sustatzaileak eta, zeharka, Aldundiak daukan kontratazino-zerbitzu osoak be bai. Izan be, kontratazinoko espediente bakotxean, alderdi esleipendunari eskatzen jakozan eskakizunak zehazten dira, eta, holan, ulergarria danez, jaubeak edo kontratu horren arduradunak, baina kontratazino-zerbitzu osoak be bai, badauka klausula horreen betearazpenaren egiaztapena kontroletako, aztertzeko, jarraipena egiteko aukerarik.

Horrezaz ganera, adierazo dodanez, ezarri beharreko mekanismoa baldintzen plegua bera da, baina Aldundiak 2018ko bagilean, 2018ko bagilean onartu eban gidaliburu hori: klausulak ezarteko erespide eta jarraibide guztiak azaltzen dauzan gidaliburu praktikoa. Gidaliburu hori eskuragarri daukazu, eskuragarri daukazue. Bagilaren 25eko 35/2018 Zirkularra da. Gidaliburu osoa.

Zer azaltzen da gidaliburuan? Hainbat eta hainbat, hainbat eta hainbat gauza: besteak beste, jarraipenerako, aurreikuspenetarako eta, baldintzak bete ezean, zehapenetarako eta klausula sozialen, ingurumeneko zein beste era batekoen esleipenerako sistema partikular guztiak.

Bertan, 17 agiriak agertzen dira kasuan kasuko klausuletan zehaztutako jarduketa-arlo bakotzeko. Gidaliburu dinamikoa da, bizirik dagoan gidaliburua da eta une bakotxera egokitzen da, instituzinoan kontratatuko erantzunbeharra daroen zuzendaritzek badaukielako euren zirkularren mekanismoaren bidez egokitzerik.

Azken urte biotan, 2019. eta 2020. urteetan, danetara 2.783 klausula sozial eta ingurumeneko klausula kontuan hartu dira instituzinoak egindako 234 kontratutan, eta atzetik kontratazino gehiago lotuta daroezan kontratu horreetako batzuk esparru-kontratuak dira.

Tira, zer jazoten da beteten ez badira edo baldintza horreek urratzen badira? Klausula horreek? Tira, pleguak eurak. Gidaliburuan bertan zehazten da, baina pleguetan bertan zehazten da zer ondoriogaitik ezarri daitekezan zehapenak, edo kontratua bera be emon daiteke amaitutzat. Era berean, kontratatuko debekua be ezarri ahal jako esleipendunari. Azken batean,

mekanismoa, mekanismoa plegua da. Administrazio guztiak behartzen dabezan klausula partikularren kontratazio-pleguak, eta bere garrantzia daukan gidaliburu hau be bai.

Galdetu egiten deustazu, eta galderak garantzen noa, ea astirik emoten deustan. Galdetu egiten deustazu erakunde autonomiadunek egindako azpikontratazioak ekidin daitekezan. Tira, zehaztu egin gura dot Aldundiak erakunde autonomiadun bat baino ez daukala *stricto sensu*, GUFEn, alegia. Ganerakoak soziedade publikoak dira.

Tira, azpikontratazioari jagokonez, derrigorrean bete beharreko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea horren aurka doa, hain zuzen be. Azpikontratazioaren desagerpenaren aurka doa, eta bitxia da, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak sustatu egiten daualako. Zergatik? Lehendik baegoan kontratazioaren gehieneko ehunekoa kentzen daualako. Lehen, azpikontratetako gehieneko aukerak zeunkazan kontratuan, eta Kontratuei buruzko Legeak hori kentzen dau. Dana dala, bestetik, azpikontratei egin beharreko ordainketea kontroletako, kontroletako neurriak zehazten dauz. Holan, gaur egun, kontratuaren esleipendunak azpikontrateari ordaintzen ez badeutso, administrazioak badauka azpikontratisteari zuzenean ordaintzerik, holan aurreikusi ezkerro. Barriro dinot. Administrazio guztiek bete beharreko legea da, baita Aldundi honek be. Estaduaren oinarritzko legea da.

Segidu egiten dot. Osalanegaz edo Laneko Ikuskaritzeagaz hitzarmena, alkarlana daukagula eta, tira, ba, Laneko Ikuskaritzea laneko agintaritzea da, eta, alde horretatik, eginkizun garrantzitsuen artean dauka, bere eginkizunetakoa lan-arloetako ikuskaritzea hori egitea da, ostera. Agirikoa danez, ikuskaritzan salaketak aurkezteko aukerea dago beti, baina derrigorrean egin behar dabe hori. Halanda ze, ez litzateke zentzuzkoa izango hitzarmena egitea, Laneko Ikuskaritzeak berak ardurapean daukan lana egin daian.

Osalan, ostera, organu aholku-emoilea da, eta laguntza teknikoa emoten deutso Laneko Ikuskaritzeari. Bai, agintaritzea da, eta osasuna jagoteko arloko agintaritzea da. Halanda ze, horren bidez, esan egin gura dot guk ez daukagula hitzarmenik Osalanegaz, Laneko Ikuskaritzeagaz kontratazioari begira, baina ez gura ez dogulako, ez, ez, ez, instituzino honek gura ez daualako, arlo horretan holako hitzarmen berezirik egiten ez dabelako baino. Izan be, arlo horretan jardun behar dabe derrigorrean.

Sektore publikoko baldintzen hobekuntzeari eta profesionalizazioari buruz be itantzen dozu. Hara, nik kontratazio publikoari buruz berba egin dot orain arte, eta, bertan, alderdietako bat administrazioa, Aldundia da edo bertako foru-erakundeak. Galdera horretan, itaun horretan, barriz, sektore osoari buruz itantzen gabilz, hau da, turismoaren sektoreari buruz, eta hor administrazioa sustapenaren alderdi horretara, sustapenera igaroten da: sustatzailea dan administrazioa, alegia.

Nik neuk helburu horretarako, sektore turistikoaren bultzada horretarako ekintza batzuk laburtu ahal deusudaz. Bilbo-Bizkaiko Sektore Turistikoa Sustatzeko Plana daukagu, eta bere gain hartzen dauz, pandemiaren ondorio guztiei aurre egiten deutse 2020-2021ean. Bilbo-Bizkaiko 2030erako Estrategia Turistikoa barria daukagu, eta profesionalizazioa nahiz lan-baldintzen hobekuntzea be badaukaz eginkizun nagusi. Horrezaz ganera, 2019. urteko Prestakuntza Plan osoa be badaukagu, eta 2020. urtean be egin ziran, sektore turistikoa kontuan hartuta, sektore turistiko osorako dirulaguntzen lerroak, 33/2020 Dekretua, alkarleentzako dirulaguntzak eta ezin konta ahala laguntza, hobekuntza eta prestakuntza-plan, profesionalizazio horretarako, hain zuzen be, eta sektore horretako lan-baldintzen hobekuntza horretarako.

Amaitzear nago, amaitzear nago, ea azkar egiten dodan. Enpresa publikoei eta Euskaldunako, BECeke, museoetako, gure museoetako, partaidetzapeko museoetako... beharginei buruz berba egiten dozunean, esan be egin gura deusut hor ezelako ERTERik egon ez dala. Bat bera be ez. Ez dira behargin horreen guztien lan-baldintzak ezelan be urratu, ezelan

be ez, ezin dalako beste era batera izan. Administrazioak dira hori holan dala euren gain hartu dabenak, eta, barrero dinot, ezin dalako beste era batera izan.

Nire ustetan, horren bidez, amaitutzat edo erantzutzat jotzen dodaz egin diran galdera nagusi batzuk. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Diputado General. Vamos a pasar al turno de réplica. Para lo cual, señor Escalante Mesón.

El Sr. **ESCALANTE MESÓN** jaunak: Sí, muchas gracias de nuevo. Muchas gracias por sus explicaciones.

Ondo da. Aldez aurretik, parkamena eskatu gura dot oinarritzat hartu ahal izan dodazan errakuntzakaitik, datetan ez asmetegaitik, berbarako.

Nabarmendu egin gura dot, tira, zalantzea daukat, batez be, berbarako, klausula sozialak ziurtatzeko orduan zer mekanismo dagozan daukagu berbabide. Azaldu deuskuzenez, horretarako dagoz pleguak, baina oraindik zalantzea daukat, eta hori argitu gura dot, hau da, jarraipena kontroletan dan. Egon behar dala ulertzen dot, baina ez daukat argi zelan egiten dan. Izan be, nire ustetan, beteten ez dabezan enpresak zigortzeko mekanismorik badago, kontrolau egin behar dira, zeozelan esatearren. Horixe da argi ez daukadana, hau da, hori zelan egiten dan.

Gero, azpikontratazioari jagokonez, Sektore Publikoko Kontratuak buruzko Legeak baimena emoten dauan ala ez. Nire eretziz, beste administrazio publiko batzuetan zer jazo dan ikusita, bertan kanporatutako enpresa batzuk udalera itzuli diralako, tira, publiko egin diralako barrero, azkenean, subjektibotasunen kontua da, eta legearen interpretazioagaz dauka zerikusia. Batzuetan, jagokun epailearen esku edo administrazio publikoak lege hori interpretetako daukan moduaren menpe dago ezarri ahal izatea.

Izan be, beharginak eta euren ordezkariak administrazioetan eskatzen dabilz enpresen kanporaketa hori esku publikoetara itzultzeko, barrero joateko. Gure kasuan, berbarako, zer esanik ez, enpresa bigaz egin genduan, hau da, Lanbide eta Zugaztel. Bertan ez genduan eskatzen bertako beharginak iraitzeko, adierazo zan lez, beharginak Aldundiko administrazio publikoan integretako, subrogetako eskatzen gendualako. Hau da, ez da hain gatxa.

Laneko Ikuskaritzeari jagokonez, guk proponidu egiten genduan beharbada, tira, beharbada ez, uste dogu Laneko Ikuskaritza proaktiboagoa izan beharko litzatekeala, hain zuzen be. Aldundiak beste enpresa bat kontratatetan dau ekitaldi turistikoetan, eta enpresa horrek, berbarako, zerbitzarien kontratazioa kudeatuko dau rugbyko finalerako barretan. Enpresa horrek zeozelan hartu behar dau, beharko leuke bere gain lan-baldintzak legezko gitxienekoak izango dirala gitxienez, eta, guk proponidutakoaren arabera, Aldundiak zeozelan ziurtatu beharko leuke kontratau dauan enpresek gitxieneko horreek beteten dauzana. Badago hori egiterik, eta egin egin beharko litzatekeala uste dogu.

Enpresek betetea edo ez betetea kanpoko eskuetan geratu daiteke, zeozelan esatearren. Halanda be, laneko arriskuen prebentzioa beste gai bat dala eta orain dala urtebete adierazo genduan, Konstituzioaren 40.2. artikulua arabera, esan egiten da podere publikoak laneko segurtasunaren eta higiearen arduradunak dirala, baina, ganera, Auzitegi Konstituzionalak azaldu dauanez, erantzunbehar hori ez da konpentsazioaren ingurukoa bakarrik, segurtasun eta higie hori urratzen danean, prebentzioa bera be dalako podere publikoen eginkizuna. Ganera, erantsi egin gura dogu, enpresa kontratugile moduan,

esan daigun, Aldundiak jazoten danaren inguruko erantzunbeharra daukala. Gogoratu egin gura dot, agerraldi hau orain dala urtebetetik etorrelako, enpresa batek, ez Aldundiak, Ur Partzuergoan ostendu eban lan-istripu batean proponidu genduanean, azkenean, honako hauxe da legearen arabera proponiduten dana, dagoana: enpresa matrizea, esan daigun, izan behar da laneko segurtasuna eta higiena kontrolatuko erantzunbeharra daukana. Era berean, bere ardurapean be egon beharko litzatekez lan-ordutegiaren inguruko legezko gitxieneoak, baita proponidutako gai guztiak be, bere ardurapean egon beharko litzatekez. Hau da, Aldundiak zeozelan kontrolau beharko leuke enpresa horreek aldi berean kontroletan dabezala legezko gitxieneko horreek.

Amaitzear nago. Ezer be ez, horren harira, Laneko Ikuskaritzako gaiak dirala eta, ikuskaritza proaktiboa egotea proponiduten dogu, baina, horrezaz ganera, honako hauxe da gaur daukaguna: kasu askotan, laneko kontuak beteten ez dabezan enpresek isun irrigarria jasoten dabe, eta, kasu askotan, enpresa berberak dira hurrengo urtean euren kontratuaren eta zigorraren errazoia izan dan dirulaguntzea daroenak, barriro daroenak edo barriro be hitzartzen dabezanak. Halanda ze, deigarria da guretzat, eta uste dogu zeozelan zehaztu beharko litzatekeala barriro, Aldunditik bertatik, behintzat.

Tira, askoz be puntu gehiago dagoz, baina ez naz luzatuko, hori egiterik be ez daukat. Halanda ze... Muchas gracias por sus explicaciones.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Escalante Mesón. En el turno de réplica, señor Diputado General, tiene la palabra. Sí, espere.

El Sr. **REMENTERIA MAIZ** jaunak: Muchas gracias de nuevo, señora Presidenta, también a todos/as ustedes.

Para empezar, señor Escalante Mesón, zuk lehenengo agerraldian baieztu dozu eta itaunean bertan be adierazo dozu Aldundiak behin-behineko kontratuak egiten dauzana. Aldundiak ez dau behin-behineko kontraturik egiten, inondik inora be ez, inondik inora be ez. Ez dago Aldundiaren behin-behineko kontraturik. Aldundiak, beste edozein administrazinok lez, obrako, emokidako, hornikuntzako, zerbitzuetako kontratuak egiten dauz, ez behin-behineko kontratuak. Halanda ze, ez dakit zeri buruz berba egiten dozun behin-behineko kontratua aitatzen dozunean. Gero, lan-kontratazinoa beste gauza bat da, eta administrazinoak ez dau behin-behineko kontraturik egiten lan-kontratazinoan. Administrazinoak era publikoan kontratatetan dau egon badagozan kontratazino publikoko mekanismoakaz, bai funtzionalizazinokoa danean, bai lan-kontratudun behargin publikoena danean. Horixe da administrazinoak egiten dauana.

Gune grisei buruz berba egin deustazu. Zeure agerraldian be esan dozu: gune grisak. Halanda be, ez dakit zer, izan be, ez deustazu adibiderik jarri, ez dakit zer gune grisi buruz berba egiten deustazun, administrazinoak eta instituzinoak zein bertako foruerakundeek egiten dabezan kontratazinoei jagokenez. Ez dakit.

Kontratuen kontrola. Kontrola. Lehenengo zatian argitu gura izan dot. Kontrola bikotxa da. Kontrola funtzino publikoak berak egiten dau, kontratuaren arduradunak berak, dana dalakoak. Horretarako, aztertu egiten dau, ulergarria danez, kontratazino pleguan zehazten diran klausula guztiak beteten dauzan, baita alderdi esleipendunagaz egiten dauan kontratua be, baina, era berean, Aldundiak daukan kontratazino-zerbitzuak berak be egiaztetan dau baldintza horreen betearazpena. Kontrola, ganera, publikoa da, publikoa, ez dago ez ezelako kanpoko erakunderik ez besterik. Lehen egunean esan zenduenez, kanpoko eragilea kontratauko da, GJHak beteten doguzan kontrolatuko. Kontrola publikoa da. Nik neuk konfiantza handi-

handia daukat administrazioan daukaguzan funtzionarioen kontrol publikoan, eta eurenak be badira Aldundian. Kontrol hori egiten dabe, hain zuzen be. Eurek egiten dabe.

Azpiktratazioari jagokonez, sekulako nahastea dago hemen. Administrazioak kontratetan dauanean, esleipendunak dira, alderdi esleipendunak, kontratistak. Azpiktratak, bigarren mailan, kontrata horrentzat, kontratista horrentzat lan egiten daben beste enpresak dira. Halanda ze, zuk ez dozu ulertu azpiktrateari buruz berba egiten dozunean, azpiktratatzat hartzen dozuzala administrazio batek egiten dauzan kontratazio guztiak, eta, parkatu, baina ez da holan. Sektore Publikoko Legeak adierazoten dauanez, alderdi esleipendunak egiten dauan bigarren kontratazio hori da azpiktratea. Izan be, horixe bera daukat berbabide, legeak berak azpiktratarako aukerea ez eze, fidantzea be kentzen dauanean, derrigorrean bete beharreko Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legeak, alegia. Zuok, eta guk uste dogu azpiktratak kendu behar dirala, murriztu egin behar dirala, badakizue non zagozen gobernetan. Izan be, Kongresuan, Madrilen, aldatu beharra dago lege hori, eta zuok ekimena daukazue Espainiako Gobernuan, euki badaukazue.

Lanbide eta Zugaztel aitatu dozuz hemen eta zuok ez dakit zer egin zenduela arlo publikoan geratu eitezana. Lanbide Eusko Jaurlaritzako erakundea, organua da, ostera. Zugaztel, barriz, Aldundiko foru-erakundea da, foru-behargin publikoak daukaz. Ez dakit, nik neuk ez dot ulertu zergaitik aitatzen dozuzan Zugaztel eta Lanbide.

Tira, Osalari eta Laneko Ikuskaritzeari jagokonez, argitu egin deutsut: ez da bidezkoa. Era berean, zehaztu be egin gura dot, ulergarria danez, alderdi guztiok betebeharra daukagula eta ahalegina egin behar dogula, gure bilbe ekonomikoan, gizartean, kalidade handiagoko enplegua egon daiten eta bete-betean lan egin daiten, enpleguari eusteko eta kalidade handiagokoa izateko. Hori holantxe da. Guk geuk, administratibotik, ulergarria danez, kontratazio publiko guztian, baina ahalegin hori sustapenetik eginda be bai.

Edozelan be, gizarte osoari jagoko, administrazioari, lehenengo eta behin, bilbe ekonomiko guztiari, enpresei, zuzendariari, beharginari, sindikatuari. Horixe bera da egin behar doguna. Guk esparru baxotxa eta eskumen baxotxa jagoten dogu. Horregaitik garrantzi ezin handiagoa emoten deutsegu instituzio honetako enplegu-plani, eta enplegu-plan horreek beste instituzio batzuek be koordinetan dira; esate baterako, Eusko Jaurlaritzegaz, eta inbersino handia egiten da, zentzun horretan enplegu-plan horreetarako zeharka lan egiten dauan sail bategaz.

Dana dala, zerga-ikuspegitik, instituzio hau, Bizkaiko Ogasuna, izan zan besteak beste Soziedadeen ganeko Zergan kenkaria sartu ebana, enpresek euren beharginen enpleguaren kalidadea handitzeko aukerea euki eien. Kenkari hori Soziedadeen ganeko Zergan dago, enpleguaren kalidadea hobetzeko, eta neurri hori beste administrazio batzuek be aztertu eben interes handiz. Halanda ze, lan egiteko modu barrizaille hori be euki genduan.

Barrero dinot. Uste dot lan egitea jagokula danoi. Uste dot ahalegina egiten gabilzala, baina, ezelako zalantza barik, ahalegin handiagoa egin behar dogu arlo guztietan, enpleguaren kalidadea hobetzeko, baina administrazioan bertan ez eze, azaldu egin deusudalako zelan egiten dan administrazioan bertan eta foru-erakundeetan, bilbe ekonomikoan be bai. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Diputado General. Punto segundo del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

2.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001162](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: Pago del peaje de la AP-68.

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001162](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (48A)

Expediente: ([11/B/18/0002173](#))

2.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001162SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: AP-68ren bide-sariaren ordainketea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001162SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (48A)

Espedientea: ([11/B/18/0002173](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Corresponde el turno a la juntera que ha presentado la iniciativa. Por tanto, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Mahaikideok, batzarkide jaun-androk, buenos días a todos/as. Egun on danoi.

Eskumenen eskualdaketak alderdi baten edo instituzino baten aldarrikapen politiko hutsetik harago joan beharko litzatekez, besteak beste, benetako zentzuna euki daien, herritarren onurarako izan behar diralako. Horixe bera da gure itaunaren helburua: AP-68ko titulartasunaren aldaketea bizkaitarren onurarako izatea.

Labur-labur gogoratu gura neuke titulartasun-aldaketa horrek euki dauan ibilbide juridiko instituzionala. Apirilaren 26ko 314/2019 Errege Dekretuaren bidez, Estaduaren eta Autonomia Erkidegoaren arteko Transferentzietako Batzorde Mistoko Osoko Bilkuran lortutako akordua onartu zan, eta, horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen jakon Euskadi zehartzen dauan Bilbo-Zagozako AP-68 autopistako tartearen titulartasuna. Akordu horren 4.b zenbakian, xedatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estaduko Administrazinoko ordezkarien kopuru bardinak osotutako batzorde teknikoak behar besteko baldintzak zehaztuko dauzala, horren ondorioz sortutako emokida administratiboen kudeaketa bereizgarri eta banatua gauzatu daiten. Ganera, akorduaren 5.b zenbakian, xedatu egiten da batzorde teknikoak akordua lortu beharko dauala urtebeteko epean.

Adi berean, Euskadin, akordu hori onartu zan aitaturako Errege Dekretua eta Batzorde Mistoaren akordua eransten dauzan apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren bidez.

Orain, Bizkaiari jagokonez, abenduaren 17ko 202/2019 Foru Dekretuaren bitartez, Bizkaiko Lurralde Historikoari eskualdatu jakon gure lurralde historikoa zehartzen dauan AP-68 autopistako tartearen titulartasuna.

Horra hor ibilbide juridiko instituzionala, baina politikoa be badago, eta, politiko horretan, mugarria dago titulartasunaren eskualdaketearen iraganaren eta geroaren artean. Eskualdaketea baino lehen, 2017ko zezeilaren 15eko Osoko Batzarrean, Euskal Sozialistak eta Euzko Abertzaleak taldeen zuzenketeari buruz eztabaidatu zan, eta honako hauxe proponiduten zan bertan: “Bizkaiko Batzar Nagusiek eskatu egiten dabe AP-68 autopistearen eskumena bere gain hartutakoan, Foru Aldundiak Bizkaia zehartzen dauan tartean ezarri daiala

foru-titulartasuneko bidesaripeko bide-azpiegituretan, hau da, AP-8an, Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbidean eta Artxandako tuneletan, ezarten dauan dirulaguntza-araubide berbera”.

Eztabaida horretan, Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak argi-argi berba egin eban: “joan dan urtarrilaren 1ean abian jarritako eredu horretara erantsi gura dogu errepide hori. Bide-azpiegituretako tarifen sistema integral hori Bizkaiko herritar guztien onurarako da, gure lurraldeko erabiltzaileen kostu ekonomikoak arintzen dira eta gure bide-sarearen finantzaketa eta ereduaren jasagarritasun ekonomikoa bermatzen dira”.

3 hilebete geroago baino ez, Batzar Nagusian barriro be, talde biek beste zuzenketa bat aurkeztu eben, eta, bertan, berbaz berba, adierazo be egiten zan Bizkaiko Batzar Nagusiek barriro eskatzen ebela euskal instituzinoei AP-68 autopistearen titulartasuna eskualdatu ekiela, bere kudeaketa eta ezarri beharreko bidesarien nahiz hobarien politikea errazteko asmotan”. Zuzenketearen justifikazioan, arabere argiagoak dira. “Gaur egun, oraindokarren foru-instituzinoen menpe ez dagozan ordainketapeko errepideak dagozana egiaztata, euren transferentzia eskatzen dogu, foru-titulartasuneko sarearen eta, horren ondorioz, bidesarien nahiz hobarien etorkizuneko sistemearen parte izan daitezcan”.

Hori eskualdaketa baino lehen jazoten zan. Zer jazo zan gero? Eskualdaketa onartutakoan, 2020ko zezeilaren 19an, Batzar Nagusian be bai, ekimen bie buruz eztabaidatu zan, eta Gobernuari eusten deusien taldeek batzorde teknikoaren akordurako epearen amaieraa aitatzen eben, urte horretako maiatzerako zan-eta, 2020ko maiatzerako. Ganera, epe hori ez zan derrigorrean agortu behar. Arabere gehiago, Osoko Batzar horretan, guk behin eta barriro nabarmendu genduan epe hori, era ulertuezinean alperrik galtzen egozan hilebete horreek.

Holan, Euzko Abertzaleak taldeak nire taldeak egin eban agerraldi horri emon eutsan erantzunean, esan egin euskuen hemen jente asko dagoala, ez dakit lekuagaitik dan, baina adoretu egin zan, “hara, Fernández andrea”, esaten eusten, “eskualdatzeko datea, urtarrilaren 1a; batzordeak bere lanak amaitzeko daukan epea, urtebete daukazue, 2020ko maiatzera arte”.

Tira, gaian adoretzea dala eta, uste dot badagoala jentea, eremu honetan ez eze, beste askoz gehiagotan be, seguruenik, bera goian eta ganerakoak behean egongo balira lez jokutzen dauanik. Hori dala eta, euren burua goian ikusten dabenak, goian dagozala uste dabenak ez dagoz prest, euren eretxiz behean dagozanek aurka egin ahal deutseela onartzeko. Nik, ostera, honako hauxe dinotset Batzar Nagusi honetan: adoretzea be izango ete da itantzea zergaitik igaro dan ia-ia urtebete batzorde teknikoaren akordua lortzeko epea amaitu zanetik eta zergaitik segiduten dogun bizkaitarrok bidesari berberagaz? Baleiteke oraindokarren Bizkaiko Foru Aldundiak AP-68ko erabiltzaile bizkaitarrak jarrea erabiltzaile arabar, errioxar edo aragoarren azpitik. Izan be, ez dabe ezelako titulartasun-eskualdaketarik behar izan, hobariak, bidesari solidarioak eta autopistako tarte batzuetan doakotasuna be eukiteko.

Izan be, barriro be, errealidadea da nagusi, errealidadeak nor bere lekuan jarten dau azkenean. AP-68a eskualdatzeko akordiotik 23 hilebete igaro ostean eta batzorde teknikoan akordua lortzeko epea agortu zanetik ia-ia urtebete igaro ostean, bizkaitarrok bardin segiduten dogu. “Bost ardura deusku bost ardura deuskunak”, peto-petoak esango leukean lez. Hemen, ez dogu ortuariaren txakurrarena erabiliko. Izan be, jakina, gero badinogu, funtzionarioak aitatzen doguz, eta badinogu konfiantzea daukagula eta kontrola egiten dabela, baina emoten dau Estaduko funtzionarioak diranean konfiantza hori txikiagoa dala. Nik ez dakit Estaduko funtzionarioak, Estaduko abogaduak be hartuko doguzan erruduntzat, AP-68aren titulartasuna aldatu arren, bizkaitarrok bidesari berbera ordaintzen segiduten dogulako. Batzar Nagusian agindu eztabaidatuezin horreek, Gobernuari eusten deusien taldeen bultzadeaz eta botoez emondakoak, hain zuzen be. Hemen, ezin dogu ortuariaren txakurrarena erabili, baina

eskualdaketan “bost ardura deusku bost ardura deuskunak” esaera peto-petoa oso ondo ekarrita dagoala uste dot.

Azken batean, horixe bera zan EAJren aldarrikapen historikoaren betearazpena. Komunikabideetako izenburua zan sasoi horretan, eta emoten dau gaur, ordu honetan hori baino ez dala izan, argazkia, orri-oina. Izan be, ez da errealdade praktikora, bizkaitar bakotxaren egunez egunekora eroan erabilgarritasuna daukan benetako aldaketarik, nire eretziz eskualdaketaren, AP-68aren titulartasunaren aldaketaren helburua horixe bera dan arren.

Gure eretziz, politikako jarduketea ez da aldarrikapenetan agortu behar, jentearen onurarako, personen onurarako jarduketetan gauzatu behar diralako. Tribuna honetan, hainbatetan eta hainbatetan entzun dot Foru Gobernuaren ekintza politikoaren helburua personak dirala esaten. Horixe, bada. Gai honetan, agirikoa da aldarrikapen politikoak dirana helburua eta ez personak.

Kasu honetan, erabiltzaile bizkaitarrentzat, hain zuzen be foru-aldundien titulartasunpean eta bidesaripean zuzenean kudeatzen diran bide-azpiegituretarako dirulaguntzei buruzkoa dan irailaren 15eko 122/2020 Foru Dekretuko zioen azalpenean adierazotakoa oraindokarren jasaten dabela kontuan hartuta, eta, berbaz berba, zera azaltzen da Foru Dekretu horretan: “desbardintasuna dago mobikortasunerako banakako aukeretan, eta ondorioak be adierazgarriak dira; arlo ekonomikokoak, besteak beste, bidesaria ordaintzean sortutako kostuakaitik”.

Programa honetan, kostu ekonomiko horreen zati bat konpentsetea da sustapen-neurri guztiek bete behar daben interes soziala, horren bidez bardintasunezkoagoak diran baldintzak bultzatzeko mobikortasunerako politikagintza publikoan, hau da, oraindokarren ez da zuzendu erabiltzaile bizkaitarrek jasaten daben desbardintasuna, beste lurralde batzuen edo beste erkidego batzuen aldean, horreek era bateko eta besteko sistemak ezarri dabezanean, herritarrentzako bidesari-kostuak gitxitzeko, kasu batzuetan doakoak be badirala kontuan hartuta, lehen esan dodan lez; esate baterako, AP-68ko tarte arabarrean, errioxarrean edo aragoarrean.

Izan be, gure ustetan, esan barik doa erabat bidesarien politikeak garrantzi sozial eta ekonomiko handia daukana, milaka herritarrek egunero egiten dabezan joan-etorrietako segurtasuna handitzen dauana eta, horren ondorioz, gure errepideetako ezbehar-kopurua murrizten dana. Horregaitik, itaun honetan, honako galdera honetarako erantzun sinisgarria lortuko dogulakoan gagoz: zer neurri bultzatu gura dauz ahaldun nagusiak, Bizkaiko egoiliarak eta AP-68ko erabiltzaileak diran persona fisikoek berehalako onura zuzena lortu daien azpiegitura horretako bidesariari jagokonez? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, señor Pradales Gil, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Señora Presidenta, Diputado General, junteros/as, buenos días a todos/as. 2020ko urtarrilaren 1etik, hain zuzen be, Bizkaiko Foru Aldundia Bizkaiko Lurralde Historikoko ahalmen handiko errepide guztien titularra da. Hori ez litzateke harritzeko modukoa izan beharko, 1985etik eskumen hori foru-administrazioarena dala eta autortuta daukala eta, hain zuzen be, Gernikako Estatutua onartu zanetik 42 urte betetear dagozala kontuan hartuta. Dana dala, holantxe da, 2019ko abenduan Bizkaia, esan dan lez, geratzen zan azken autopista-tartea jaso ebalako. Urte haretako apirilera arte tarte hori Estaduaren esku egon zanez, ez zan Gernikako Estatutua bete, hain zuzen be.

AP-68ko euskal tarreak euskal instituzinoek hamarkadetan egindako lanari eta eukitako irmetasunari esker eskualdatu ziran, emon barik egozan eskumenen eskualdaketea, Gernikako Estatutuaren erabateko betearazpena eskatzen ebelako, oraindokarren amaitu barik egoala kontuan hartuta, hain zuzen be.

Holan, 2020ko urtarrilaren 1ean, Bizkaiak titulartasuna jaso eban azkenean. Kudeaketea ez, ostera. Autopistako 22 kilometroren titulartasuna, tarte txikia. Izan be, autopista horretako ibilbide osoko tarte laburrena eta foru-errepideetako 1.300 kilometroen gitxieneko zati bat. Tarte txikia, baina ezin garrantzitsuagoa, horri esker Bizkaiko ahalmen handiko sarea kudeatuko dalako osorik. Ez daiala inork pentsau, ez daiala inork pentsau hau transferentzia txikia danik Bizkaiarentzat edo euki sinbolikoa baino ez daukanik, AP-68a bera eta, etorkizunari begira, Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbideagaz, Superhegoaldeagaz eukiko dauan lotunea, gaur egun egiten gagozana, funtsezkoak diralako, Bizkaiak meseteagaz eta mediterraneo penintsularragaz daukazan konektibotasuna eta lehiakortasuna jorrazteko eta hobetzeko. Oinarrizkoa da, jarduera ekonomiko industrialak sortzen dauzan trafikoak ahalmen handiko barruko bideen bitartez bideratzeko eta bere eragin-eremua handitzeko. Aldundia autopista honen instituzino titularra eta, etorkizunari begira, kudeatzailea danez, erabiltzaileei zerbitzu integrala eta eraginkorragoa eskaintzeko aukerea be emongo deusku. Azken batean, mobikortasun-eskaria era globalean atondu eta kudeatu ahal izango dogu, sare osoaren errazionaltasunerako eta jasangarritasunerako erespideak kontuan hartuta.

Halanda ze, AP-68a autopista garrantzitsua da Bizkaian eta Bizkairako. Autopista hori, ganera, Estatu espainolaren emokidearen bidez eregi zan eta ustiatu egiten da, eta emokida hori indarrean dago oraindokarren. Zemendiaren 2ko 2802/1973 Dekretuaren bidez, Bilbo-Zaragozako ibilbidea eregiteko, artatzeko eta ustiatzeko emokida administratiboa esleitu zan 22 urteko epealdirako. 1973an, 22 urterako.

1982an, errege-dekretu batek emokida administratiboaren termino zehatz batzuk aldatu ebazan, eta 38 urtera arte luzatu eban emokidearen epealdia. Horren ondorioz, 1995era arte eroan zan emokidea. Azkenean, 2000. urtean, barrero, zezeilaren 4ko 172/2000 Errege Dekretuaren bitartez, Espainiako Gobernuak aldebakartasunez eta Estatutuko aginduak bete barik emokidearen terminoak aldatu ebazan barrero, eta 53 urtera arte luzatu eban emokidearen epealdia, 2026. urteko zemendiaren 10era arte, hain zuzen be.

Onartzen badeustazue, labur-labur berba egingo deusuet beste autopista bati buruz, kontakizun hau egiten segidu baino lehen. 2002. urtetik, Bizkaiko Foru Aldundiak AP-8aren titulartasuna eta kudeaketea hartu ebazan bere gain, tarifak jatsi ziran, hobekuntzarako obra handiak egin ziran, erreiak handitu genduzan, bidaia-kopuruaren araberako deskontuak ezarri genduzan, bidesari-ordainleku barriak eregi genduzan eta lotunerako zein garapenerako azpiegitura barriak be bai, Autzaganen, Ermuan, Gerediagan. Harrezkero, 300 milioi euro inbertidu doguz. 2017an, beste urrats bat emon genduan, Aldundiak bere eredu ezarri ebalako, bere kudeaketapeko foru-autopista guztietan erabiltzaile bizkaitarren bidesari-gastua gitxitzeko, bidesari-bonua, alegia. Eredu horrek dirulaguntzetarako darabil batzen danaren zati bat. Gaur arte, hain zuzen be, 25 milioi euro baino gehiago itzuli jakez bizkaitarrei. Benetako bidesari soziala. Egitateak eta errealdadeak, titulartasuna eta kudeaketea Foru Aldundi honen esku egon danean, Fernández andrea.

AP-68a foru-titulartasuneko autopistea da 2020ko urtarrilaren 1etik, hain zuzen be, baina oraindokarren enpresa pribadu batek kudeatzen dau, hau da, Avasak, Autopista Vasco-Aragonesak, 2026ko zemendiaren 10era arte indarrean egongo dan emokida estatalaren bidez. Aldundiak ez dau autopistea kudeatzen, eta ez dauz bidesari horreek batzen. Halanda be, behin eta barrero esan dogu, eta, gaur, barrero esango dot, Foru Aldundi honen borondate hausiezina dala foru-kudeaketapekoa ez dan azpiegitura hori Bizkaiko tarifan gaur eguneko sistema integralean sartzea. Horixe egin gura dogu, gure kontzepzino politikoan eta gure ekintza politikoan oinarrizkoa dalako bizkaitar guztientzako aukera-bardintasuna.

Horregaitik, lanean gagoz, kudeaketea, eta barrero dinot, Foru Aldundiarena ez bada be. Izan be, ganera, Batzar Nagusiok holantxe erabagi eben joan dan zezeilaren 19an, onartutako arauz besteko proposamenean zera esan zanean, esaten zanean, eta berbaz berba irakurriko dot: “Bizkaiko Batzar Nagusiek Aldundiari eskatzen deutesie gastu-mugearen sisteman sartu daizala foru titulartasuna eta kudeaketea daukiezan bidesaripeko bide-azpiegitura guztiak, eta, AP-68aren kasuan, harik eta kudeaketa zuzena bere gain hartu arte eta Transferentziari buruzko Dekretuan aurreikusitako batzorde teknikoaren lanak amaitutakoan, enpresa emokidadunagaz aztertu daiala dirulaguntzen ezarpena, gastu-mugea albo batera itxi barik, eta azterketa horretan honako hauxe kontuan hartu daitela, besteak beste: egindako bidaiei buruzko informazino-prozedurea, iruzurra ekiditeko behar diran mekanismoak eta, holan bajagoko, alderdien artean adostutako sistemea ezarteko beharrezkoa dan inbersinoa”. Hori dala eta, mekanismo horreek guztiak aztertu ez eze, lantzen be bagabilz Avasagaz, eta barrero dinot autopista hori gaur egun kudeatzen dauan enpresea pribadua dala, foru titulartasun eta kudeaketapekoak diran autopista guztietarako gaur egun indarrean dagoan sisteman sartu ahal izateko, holan bajagoko.

Argitu beharreko funtsezko hiru gai: datuen babesari, iruzurra ekiditeko beharrezkoa dan ekipamentu teknologiko eta fisikoa eta Interbiaketeko zein Avasako sistema informatikoen arteko bateragarritasuna. Iruzuraren kontrolari jagokonez, gure ustetan, eta holantxe gabiliz lantzen Avasagaz, indarrekoak lako eskakizun eta berme berberak ezarri behar dira, gaur eguneko bidesari-bonua lortzeko. Eskubide berberak, betebehari berberak. Holan, horren ondorioz, derrigorrezkoa da lurraldera sartzeko eta bertatik urteteko atea izango dan free-flow kontrol-ataria jartea norabideko, behar diran kontrolak egiteko eta lurraldera sartu edo bertatik urtetan daben ibilgailu guztiak detektetako; eta atarietan erdiesten diran datu horreek kudeaketa-sistema berean sartzeara.

Ekipamentu teknologikoari jagokonez, Avasaren eta Interbiakete software-sistemek hobekuntzak egin behar dabez back office bateratuan. Holan, Bizkaia-aren eta AP-68aren artean erkatu ahal izango da trafikoari buruzko informazinoa, Araban, hain zuzen be, baita unean bertan be. Horri esker, era ordenatuan be kontrolauko da iruzurra, integrazino teknologikorik ez egotearren gaur egun oraindokarren hori egiterik ez dagoala kontuan hartuta.

Datuen babesari eta tratamentuari jagokonez, ezinbestekoa da emokidadunak Aldundiari berari berehala eta segurtasun-bermez eskualdatzea erabiltzaileei buruzko datuak, dirulaguntzak kudeatu ahal izateko eta legearen arabera zehaztutako eskakizunak bermatzeko, datu horreek babestu eta tratetan diranean. Foru-dirulaguntzen gaur eguneko sistemeak gaur egun darabilzan datuak eratzun zarratutik abiauta tratetan dira, eta, bertan, datuen segurtasunagaitik, babesari nahiz isilekotasunari begira, erabateko segurtasuna daukagu berbabide. Gaur egun, ostera, AP-68ko sarea ez dago eratzun horren barruan.

3 arlo horreek dira emokidadunagaz jorratzen gagozanak. Gai horreek guztiek finantzaketea behar dabe, ganera.

Bestetik, autopistearen transferentzian, batzorde teknikoak sortu behar zala xedatu zan, esan dan lez. Batzorde horrek administrazioen arteko jardunbide-araubidea arautu behar dau, emokidea indarrean dagoan bitartean. Covida dala eta, batzorde horren lanak atzeratu egin diranez, azken ikutuak egin behar dira oraindokarren. Azken akordua. Alkarlan-hitzarmena, eta alderdi guztien osteko onarpena, administrazioen arteko jardunbide-araubidea arautzeko. Orain arte, 6 bilera tekniko egin dira, aurrera egin dogu eta honako honexegaz lotutako ezin konta ahala gai adostu doguz: eragiketeara, artapena, azpiegiturak, ekipamentuak, personak. Foru Aldundien eta Garraio Ministerioaren arteko jardunbide-araubidea arautu behar dauan akordu hori baino ez da lortu behar. Joan dan zezeilaren 25ean, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiok testu adostua bialdu geuntsan ministerioari, eta agiria noiz zarratuko zain gagoz. Hurrengo asteetan izango dalakoan nago. Holan, batzorde teknikoaren lanei emongo jake amaiera.

Hitzarmena ezarritakoan, eta barriro dinot, emokidaduna dan Avasagaz egin behar diran beste negoziaketa batzuei ezelako kalterik egin barik, legezko berme guztiez jorratu ahal izango da dirulaguntzen eta gastu-mugearen sistemearen ezarpena.

Azken batean, eta amaitzeaz nago, urrats irmez eta norabide egokian gabiltz aurrera egiten, gai administratibo, teknologiko eta finantzario guztiak konpontzeko orduan. Horretan gagoz eta horretan lan egiten segiduten dogu, euskal instituzinoen eta Foru Aldundi honen borondateagaz zerikusirik ez daukan emokida estatalari eustearren sortutako zailtasunak gainditzeko eta Bizkaiko bidesarrieko azpiegitura guztiak erespide berberetz kudeatu ahal izateko. Muchas gracias.

PRESIDENTA / LEHENDAKARI andreak: Muchas gracias a usted, señor Pradales Gil. En el turno de réplica, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Autonomia Estatutua dala, Covida dala, kudeaketea dala, eskari globala dala, batzorde teknikoa dala, azterketea dala, azterketak dirala, bilerak dirala. Entzun, Pradales jauna, non geratu ete dira Batzar Nagusiok transferentzia baino lehen emondako aginduak, Foru Aldundiak AP-68an, Bizkaia zehartzen dauan tartean, behintzat, foru-titulartasuna daukien bidesarrieko bide-azpiegiturei ezarten deuten dirulaguntza-araubide bera ezarri daian? AP-8a, Metropolialdeko Hegoaldeko Saihesbidea eta Artxandako tunelak.

Une honetan, gaurko egunean eta orain arte, aldarrikapen politikoaren eukian lausotu da, argazki-oindun eskualdaketa mediatikoan. Bidesarien politikeaz harro zagoz, tira, eta nik neuk gehiago esango neuke kolokan jarritako bidesari-politikea dala. Ez dot uste horretaz harro egon gaitekezanik. Horixe dinot, AP-8a aitatu dozulako tribuna honetan, ausardia behar da, gero!, emokidea orain dala urte luze amaitu zanean eta oraindokarren doakotasunari aurre egin ez jakonean.

Entzun, zuk errealidadeak eta egitateak euki dozuz berbabide. Nik neuk bat esango deusut: Ermutik Galdakaora doan tartean, nahiz eta orain dala hamarkada askotatik amortizauta dagoan, bidesaria dago oraindokarren. Oraindokarren ez jako doakotasunari aurre egin. Bien bitartean, bestetik, zure sailak bultzatuta, obra faraonikoak egiten segiduten dozue, Superhegoaldea, barbarako. Hain zuzen be, ehunka milioi euro erabili dozuez horretarako, trafikoek porrot egin dabe eta bidesaria horren artapen-gastuen ehuneko txiki-txikia baino ez da.

Izan be, jakina, berton doako bidesariei buruz berba egiten badot, horri buruz berba egiterik ez dagoala esango deustazue. Hara, Errioxa, AP-1a Burgosetik, beti ez dira baliabideak, herrialde-politikea dagoalako lehenago, bidesarien politikea be badalako politika ekonomikoa, eta, hasteko, ezin da aldaketa hori albo batera itxi, sarritan egiten dozuen moduan. Bien bitartean, bestetik, badinotsudanez, ehunka, ezin konta ahala baliabide xahutzen dozuez eztabaidagarri baino eztabaidagarriagoak diran azpiegituretan; esate baterako, Superhegoaldea.

Iruzurra. Tira, horixe baino ez genduan behar! Zuok oso gogoko daukazuen esloganaz erantzungo deusut: “bidesari-bonua bai, eta kontrola be bai”. Horretarako dago administrazioa, eta horretarako daukazuez hori egiteko erremintak, guk asko dirala uste dogulako, ezelako zalantza barik. Abantailak tribuna honetan eta batzordeetan be nabarmendu dira, zure sailaren eskutik be bai; autopistearren erabilerearen sustapena, esaterako. Batzuk, ganera, badinodanez, zuok autortu dozuez, hau da, bide-segurtasuna, erregaiaren aurrezkoa eta ibilgailuen artapena, errepide azkar horreek kutsatzen dabena.

Horrezaz ganera, esan deusudanez, bidesarien politika ona be bada onuragarria ekonomiaren jardunbide onari begira, baina, horretarako, bidesarien bidezko

politikea betearazo beharra dago, herritarrek bardintasunezko mobikortasun seguru, eraginkor eta jasangarrirako daukien eskubideari eutsi deioen eta, era berean, ekonomiari be suspertzen lagundu deion. Nire eretxiz, badaukagu aukerarik AP-68an, hau da, ibilgailu pribaduaren katibuak diran erabiltzaile bizkaitar askorentzako aukerea. Izan be, lanagaitik, ikasten joan behar diralako eta ibilgailuan joan behar diralako eta aukerako garraio bideragarririk ez daukielako, murrizketea lortzeko eskubidea daukie eta bidesariagaitik ordaintzen dabezan kostuak kentzekoa be bai.

Gure ustetan, ezin da onartu murrizketa horreek, hobari horreek ezarri barik segidutea, baina beste lurralde batzuetan, beste administrazino batzuetan ezarrita egotea. Adibide bat jarriko deutsut: Barakaldotik Gasteizera joan gura badot, 70 kilometro dagoz, eta 5,65 euro ordaindu behar dodaz. Edozelan be, Oviedoko nonor, asturiar bat Gasteizera badator, nahiz eta 343 kilometro egin, berbera ordainduko dau, 5,65 euro. Zure ustetan, Foru Gobernu honen ustetan, zentzunezkoa ete da hori, jasangarria ete da, tribuna honetan azaldu dozuzan atxakia horreen guztien atzean ostendu zaitekez, beste lurralde batzuetako herritarren aldean bizkaitarrak zehatzeko?

Nire eretxiz, benetan, gai honi buruzko hausnarketea egin beharra dago. Jakina, 2026ra arteko luzapena dago. Entzun, ez dakit zergaitik baina uste dot ordura arte luzatuko dozula erabagi hori, kudeaketeari buruz, titulartasunari buruz berba egin deustazulako. Badakizu orain dala zenbat urte emoten diran Araban bidesarietarako dirulaguntzak, titulartasuna eta kudeaketea be ez eukien arren? Orduan, Ramón Rabanera zan Arabako ahaldun nagusia, eta azken luzapena egin zanean. Izan be, Alderdi Popularreko gobernu batek egin eban. Ganera, ahaztu egin jatzu aitatzea horren ondorioz %40ko murrizketea lortu zala bidesarietan. Bere lurraldea defendidu eban, bere lurraldearen defentsea jarri eban ezeren ganetik eta zera esan eban: “argi-argi dago nahikoa ez dana, baina eskumenak daukadaz, eta arabarren onurarako jokatzeko aukerea daukat”.

Gauza bat baino ez deutsut eskatzen: Ramón Rabanera jaunak egin ebana egin eizu eta zeure lurraldea defendidu. Berton bizi garan herritarren, bizkaitarren interesak defendidu eta bidesaria hobarien bitartez murriztu behingoan, besteak beste, zeuon berbea emon zenduelako Ganbera Parlamentario honetan. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / BATZORDEBURU** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, señor Pradales Gil, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **PRADALES GIL** jaunak: Muchas gracias.

Hara, ez naz ezelako diskurso politikoa egiten etorri, baina gogoratu egin beharra dago zelan, zelan izan dan historia. Neure lehenengo agerraldian esan dodana gogoratzen deutsut: jatorrizko emokidea 1995. urtean amaitu behar zan, baina 2000. urtean Aznar jaunaren Gobernuak aldebakartasunez emokidea barriro luzatu ebanez, 2026ko zemendira arte goaz. Hementxe daukazu Boletinak eta Sustapen Ministerioak inoena, orduko sustapen-ministroak, Rafael Arias Salgadok, alegia. Ezaguna, ezta? Badakizu zer dinoan 11. artikulua Euskadi-Zaragozako autopistako tarte bizkaitarrari buruz?

300 milioi pezeta inbertidu beharko zirala, gaur eguneko 1,8 milioi euro, argiak hobetzeko. Aznar Gobernuaren 15 urte gehiagoko emokidea, 1,8 milioi euroko plater bat dilistaren truke eta Bizkaiko tarteko argiak hobetzeko. Horixe bera izan zan PPko Gobernuak egin ebana. Halanda ze, gai garrantzitsua dala uste dot.

Badakizu zer egingo dogun zeuk egin dozun galdera hori bultzatzeko?: zer egingo ete dau Aldundiak Bizkaiko egoiliarrek diran persona fisikoek berehalako onurea lortu daien? Behar eta ahal diran neurri guztiak, zure alderdiak urteetan autopista honen inguruko kudeaketaren bidez sorrarazo dauzan oztopoei aurre egiteko. Horretarako, batez be, autopista horren kudeaketa zuzena euki beharra dago, Fernández andrea.

Zure esanetan, tarifak aldatu daitezke, berrikusi egin daitezke, ahal dira. Hara, uste dot hurrengoaren inguruko kontzientzia euki behar dogula: tarifen urteko berrikuspena kontratuzko eukia da, eta kontratu horren bidez arautzen dan emokidearen kontratuan dago sartuta. Ez dauka ezelako zerikusirik, inondik inora be ez, errepidearen titulartasunagaz. Holan izango balitz!, baina ez da holan. Errepidearen titulartasuna eskualdatu egin da, baina indarreko emokida-kontratuan bertan zehazten da tarifen berrikuspena, eguneraketea. Kontratu hori bakarra da AP-68 osorako, eta alderdi emokida-emoile bakarra dauka, hau da, Estaduko Administrazioa. Alderdi emokida-emoile bakarra. Halanda ze, administrazio hori da tarifen berrikuspena onartu daikean bakarra, eta guk ez daukagu hori egiteko gaitasunik. Ostantzean, egin egingo genduan. Ez da hain erraza lege-babes bako aldebarreko erabagia hartzea, Fernández andrea.

Hori dala eta, emokidadunagaz lan egiten gagoz. Horrexegaitik gagoz emokidadunagaz lan egiten, bizkaitar guztientzako onurak bilatu gura doguzalako aukerabardintasunean.

Zure esanetan, beste esperientzia bat dago Araban. Beharbada zuretzat ezezaguna dan historia be azalduko deusut. AP-68 autopistek Bizkaian daukan tartea erabilten daben bizkaitarrei ezin izan jaken diruz lagundu, Araban egin zan lez. Ezinezkoa izan zan, Espainiako Gobernuko Ordezkaritzeak ezetz esan ebalako Alderdi Popularraren garaian, baita Ganbera honen, Ganbera honen aginduz Espainiako Gobernuari erabiltzaileei nahiz egindako bidaiei buruzko informazioa emon eiala eskatu jakonean be. Une haretan, Gobernuko, Rajoy jaunaren Alderdi Popularreko Gobernuko Ordezkaritzeak honako errazoi hau azaldu eban, honako errazoi hau emon eban: AP-68ko bidesarien dirulaguntzen sistemearen ezarpenari begira informazioa truketako baldintzak arautzekotan, klausula orokorren plegua onartu eban 1973. urteko Dekretuaren 43. klausulan adierazotakoa handitu beharra dago. Benetan uste dozu hau serioa dala?

Bai, Arabak eredu ezarri eban, baina eredu mugatua. Badakizu zergaitik dan mugatua? Banku-erakundeak sinatutako hitzarmenen bidez egiten daualako. Badakizu zenbat banku-erakundegaz? 3gaz. Badakizu noren onurarako dan? Banku-erakunde horreekaz bankuko kontua daukanarentzat. Mugatua dan eredu horretan, Bizkaian ez dogu eredu horretan jausi gura. Lurralde honetako herritar guztientzako eredu gura dogu. Danentzako aukerabardintasuna, ez bakarrik banku-erakunde jakin batzuetan kontua daukanarentzat eta bere TAGi edo OBERi altea emon deusanarentzat. Halanda ze, uste dot serioagoak izan behar garala.

Onartzen badeustazue, amaitzeko, esan egin gura dot lanean segiduten dogula, AP-68a hileko gastu-mugearen sisteman edo bidesari-bonuan sartzeko, eta norabide onean gagozala aurrera egiten. Ezelako zalantza barik, AP-68aren titulartasunaren transferentziak Bizkaiko lehiakortasuna eta konektibotasuna eta Arabagazko egituraketea hobetzeko aukera barriak edegi deuskuz, eta, une honetan, AP-68aren foru-kudeaketaren bidez, Bizkaiko ahalmen handikoa oso-osorik kudeatzeko aukerea daukagu. Halanda ze, autopista hori funtsezkoa da lurralde honentzat, eta, ezelako zalantza barik, tarifen sistema integralean sartuko da berandu baino lehen. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Pradales Gil. Punto tercero del Orden del Día.

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

3.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Interpelación
([R.E.11/E/2021/0001217](#))

Autor: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Asunto: Equiparar el derecho de acceso gratuito de las personas acompañantes de personas con discapacidad en el transporte público

Documento Principal:
([R.E.11/E/2021/0001217](#))

Expediente: ([11/B/18/0002183](#))

3.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Itauna
([11/E/2021/0001217SE](#))

Egilea: Cabornero Alor, Eva María (EB)

Gaia: Desgaitasuna daben pertsonen laguntzaileek garraio publikoan doan sartzeko eskubidea parekatzea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001217SE](#))

Espedientea: ([11/B/18/0002183](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Cabornero Alor, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Benetako eskubide-bardintasunaren printzipioaren arabera, persona guztien preminen garrantzia berbera da, giza dibersidadearen errespetua inspirazio-iturria izan behar da gizarteak eratzeko orduan eta gizarte horreek eskuragarri daukiezan baliabide guztiak erabili behar dabez, bizitza sozialean parte hartzeko orduan herritar guztiak aukera berberak daukiezana bermatzeko.

Printzipio horri jagokonez, Garraio Partzuergoan bertan adostu ziran arauak eta baldintzek adierazo egiten dabe mobikortasun urrikoen laguntzaileek garraio publikoan bidaia-txartel barik bidaiatu daikiela, betibe, premina hori egiaztetan bada. Holantxe islatzen da Bizkaibuseko Eskuliburuaren 17.3. idatz-zatian, bertan xedatutakoaren arabera, ikusmen-desgaituen edo gurgil-aulkia behar daben mobikortasun urrikoen laguntzaileek ez dabelako bidaia-txartelik ordaindu behar. Ikusmen-dibersidadea daukienei laguntzeko doakotasun-onura hori ona baizen beharrezkoa da, eta garraio publikoko sareak erabilteko erraztasunak emotea dauka helburu.

Halanda be, onura horren zertzeladak aztertu ezker, benetako eskubide-bardintasuna bermatzeko orduan gure eretziz hobetu behar diran alderdi batzuk ikusten doguz. Alderdi horreetako lehenengoa eskubide hori egiaztetako modua da. Gurgil-aulkia behar daben mobikortasun urrikoak edo erabateko ikusmen-desgaitasuna daukienak diranean, laguntza-premina hori ezin agirikoagoa danez, inork ez dau kolokan jarten laguntzailea bidaia-txartela ordaindu barik sartu daitekeala garraio publikoan.

Edozelan be, eskubide hori berori autortuta daukien ikusmen-dibersidade parzialdunen laguntzaileek egoera gatx eta labanei aurre egin behar deutsee, eskubide horren adierazgarri dan egiaztapen ofizialik ez egotearren.

%10eko edo hortik beherako ikusmen-desgaitasuna daukienei buruz gabilz berbetan, eta, persona horreek hara-hona joateko orduan makila zuririk behar ez dabenez, beste persona batzuk ez dira konturatzen, ez deustie haien desgaitasunari erreparetan, baina,

laguntzailerik ez badaroe, ostera, ezin dabe garraio publikoa erabili. Kasu honetan, eta batzuetan, arazoak sortzen dira Bizkaibuseko gidariak hasiera batean, berbarako, desgaitasun horri erreparetan ez deusanean eta laguntzaileari egiaztapena eskatzen deusanean bidaiatxartela ordaindu barik sartzen ixteko. Hori dala eta, babesbakotasun-uneak eta nahikoa deserosoak diran egoerak sortzen dira persona bientzat. Ganera, berez ez dago holako egiaztapen ofizialik.

Hona hemen hobetu beharreko bigarren alderdia: mobikortasun urrikoa edo ikusmen-desgaitua laguntzaileagaz metroan sartzen danean ezezttagailuetan zehar. Batzuetan, agirika egiten deuse, bai beste erabiltzaile batzuek, bai metroko geltokiko segurtasuneko beharginek, berbarako. Izan be, lagun bi alkarregaz ezezttagailutik igaroten dirala ikustean, nahiz eta bidaiatxartel bakarraz igaroteko modu bakarra dan, metroko ezezttagailutik alkarregaz igarotean, pentsau leiteke edo interpretau leiteke ordaindu barik sartu gura dabela. Holan, bada, bape erosoak ez diran uneak eta egoerak sortzen dira, atera kontuak! Beste barik, honako hauxe da egoera gatx eta deseroso horren zergaitia: ez dago ezelako, ezelako egiaztagiririk edo txartelik, garraio publikoan errazago eta era normalizauagoan sartzeko.

Hona hemen aztertu beharreko beste alderdi bat, aztertu beharreko hirugarren alderdia, eta gure taldea kezkatuta dago horregaitik: beste era bateko dibersidadea edo desgaitasuna daukien beste persona batzuk neurri horretatik kanpo ixtean ezarten dan bereizkeria, nahiz eta, gurpil-aulkia behar dabenen antzera, laguntzea eta babesa behar dabezan garraio publikoan mobiduteko. Halanda be, ez dagoz sartuta laguntzaileentzako bidaiatxartelatik, bidaiatxartelaren ordainketatik salbuesteko neurriko onuradunen talde horretan.

Antza danez, Garraio Partzuergoak egiten dauan interpretazinotik dagoz salbuetsita. Izan be, mobikortasun urriaren faktoreari jagokonez, izan be, interpretau egiten da, partzuergoak interpretau egin behar dau mobikortasun urria zeozelako desgaitasun fisikoa daukienen artean baino ez dala emoten. Esate baterako, honako hauxe daukien personak daukaguz berbabide: espektro autistearen sindromea, adimen-dibersidadea, dibersidade psikikoa edo dibersidade funtzionala, adibideren bat jartearren. Persona horreek ezin dira euren kabuz modu autonomoan lekualdatu, baina ez errazoi fisikoakaitik edo psikomotrizidadeagaitik, euren dibersidadearen ondorioz ezin diralako orientau edo lekuru edo, beste barik, ez dabezalako jardunbidea eta ordainketa-sistemea ulertzen.

Desgaitasuna edo dibersidadea ezin heterogeneoagoa da, eta laguntza-preminak erabat aldatzen dira desgaitasunaren mailearen eta muetearen arabera.

Dana dala, desgaitu guztiek eskubide berberak daukiez, bai euren artean, bai biztanle orokorrei jagokenez. Hori dala eta, gainerakoek lako zerbitzu eta onura berberak behar dabez, euki behar dabez.

Elkarrekin Podemos-IUkook uste dogu igarritako zailtasun horreei erantzuna eta urtenbidea emon behar deusezala Aldundiak. Batetik, bidaiatxartela ordaindu barik laguntzaileagaz bidaiatzeko eskubidea egiaztetako modua. Bigarrenez, metroan modu normalizauan sartu ahal izatea, egiazttagailua korrika zehartu barik eta egoera labanik sortu barik. Hirugarrenez, Bizkaiko garraio publikoan lekualdatzeko orduan laguntasuna behar dabene eta dibersidadea daukien personen eskubideak parekatzea.

Hori dala eta, Gómez Viar jauna, itauna egiten dogu, eta zera galdetzen deusugu: zer neurri jarriko dauz abian Garraio eta Mobikortasun Sailak edo Aldundiak, garraio publikoan bidaiatzeko orduan laguntzaileak behar dabezan desgaituek azkar, erraz eta era ofizialean egiazttau daien laguntzaileek bidaiatxartela ez ordaintzeko daukien eskubidea? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Cabornero Alor. Señor Gómez Viar, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR**: Buenos días a todos/as. Muchas gracias, mahaiburua, batzarkideok, Cabornero andrea.

Ondo da, lehenengo eta behin, bertora dakarzun galdera honegaitik emon gura deusudaz eskerrak. Tira, badakizu gai hau aspalditik dana kezkarria Garraio Sailarentzat eta, kasu honetan, niretzat be bai. Ganera, batzorderen batean be urten dau nonoiz. Esan egin gura deusut Bizkaibusi buruz egin deustazun galderara mugatuko nazala. Ni neu BGPko kidea naz, baina, tira, nire eginkizun betearazleak diranak dira, dira. Halanda ze, nik neuk esan egin ahal deusut, eta zeuk be esan dozula uste dot, Bizkaibuseko Zerbitzuen Eskuliburuaren 17.3. puntuari islatzen dala itsuen edo gurrpil-aulkia behar daben mobikortasun urrikoen laguntzaileek bidaia-txartelik eroan behar ez dabela, betibe, itsuek eta gurrpil-aulkia behar dabenek egin beharreko bidaiarako baliozkoa dan bidaia-txartelaz bidaiatzen badabe. Edozelan be, persona horreek bidaiarien derrigorrezko aseguruaren eta erantzunbehar zibilekoaren bidez dagoz estalduta, ezelako istripurik egon ezkeru.

Halanda ze, zeuk esan dozunez, gaur egun, itsuen edo gurrpil-aulkia behar daben mobikortasun urrikoen laguntzaileek bakarrik lortu daikie Bizkaiko Lurralde Historikoko operadoreen artean BGPn, Garraio Partzuergoan, egoitzea daukan Tarifen Integrazinorako Batzordearen esparruan bere egunean koordinazinoan adostutako onura hori.

Era berean, egindako jarduketei buruz be itandu deustazu. Orain dala, gitxi gorabehera, urtebetera be ez da ailegetan, 2020ko garagarriaren 17an, Tarifen Integrazinorako Batzorde Teknikoa batzartu zan. Ez dot irisgarritasuna esango, horixe bera dalako batzordearen izena, baina gaur hona dakarskuzuna lako gaiak eta, batez be, irisgarritasunari buruzko gaiak jorrazteko, eztabaidatzeko, berba egiteko eta negoziatuko erabilten dan batzordea da.

Bertan, gai honegaz lotutako faktore batzuk landu ziran. Esan deusudanez, Tarifen Integrazinorako Batzordea ez zan diseinatu irisgarritasunaren gaiak jorrazteko. Dana dala, egia da, esan deusudanez, holako gaiak sartzeko erabilten dana. Bere egunean, garraio-sistemako irisgarritasunaren hobekuntzeagaz lotutako gai batzuei buruz eztabaidatu zan, bagilaren 10ean hemen, Batzar Nagusiotan bertan, be egon zan adostasunaren ondorioz sortutako proposamenei erantzuna emoteko.

Azken hilebeteotan irisgarritasunagaz zerikusia daukien era bateko eta besteko ekimenak jaso dirala eta jorrazten dagozala ikusita, sailean uste dogu beharrezkoa dala Tarifen Integrazinorako, lehen esan deusudanez, Batzorde horretarako deialdi formala egitea, sortzen dagozan eskaera honeek jorrazteko, baina Garraio Partzuergoaren esparruan, batez be.

Bizkaiko Lurralde Historikoko garraio-bide guztietan indarrean egon behar diran baldintzak beste era batera zehaztea edo zedarritzea izan behar da helburua. Era berean, bat gatoz, eta uste dot bertan jesarrita gagozan guztiok bat gatozala esaten danean proponidutako gai honetan, zeuk esan dozunez eta neu be bat nator, laguntzaileek gaur egun daukien eskubidea parekatu beharra dagoala, eta ez bakarrik geuk zehaztu doguzan kasu biena: mobikortasun urrikoak, baina gurrpil-aulkia darabilenak, eta, kasu honetan, itsuak, itsuak.

Esan be egin ahal deusut BGPri modu formalean eskatu deusagula Tarifen Integrazinorako, esan deusudanez, Batzorde hori barrero batzartu daiala edo, holan bajagoko, batzordea sortu daitela, batzordea sortu daiala eskatu deutsegu, irisgarritasunagaz zerikusia daukien gai honeek guztiak jorraztu ahal izateko. Era berean, esan egin behar deusut nire ustetan horri buruzko eztabaida zabala egin behar dala eta, seguruenik, kasu honetan Bizkaibusek, Garraio Sailak ekarpenak eta hobekuntzak egin beharko dauzala eta emoten jabilkuzan

kasuistika batzuk hartu beharko doguzala kontuan. Dana dala, uste dot azterketa zabalagoa egin behar dala eta, bertan, garraio bide guztiek esku hartu behar dabela. Zeuk esan dozunez, ni neu ados nago hartzen diran neurriak danentzat berberak izan behar dirala esaten danean. Ez litzateke bape zentzuzkoa izango guk holako neurriak eukitea Bizkaibusen, Metro Bilbaok beste era batekoak eukitea eta tranbiak beste desbardin batzuk eukitea.

Uste dot batzorde horretan bertan eztabaidatu behar dirala, akordua lortu behar dirala eta orokorrak izan behar dirala danentzat, gidalerroak argi egon behar diralako. Ganera, guk biok inoiz berba egin dogunez, eta bat gatoz, nonork era bateko mobikortasun-arazoa edo edozelako desgaitasuna daukanean, bidaia-txartela ateraten doan unea ez da justifiketan ahalegintzeko unea, orduantxe dan-dana argi egon behar dalako eta lanean dagoanak gidalerro argi baizen zehatzak euki behar dauzalako, aitatu diran egoera horreek saihesten ahalegintzeko, azalpenik emon behar ez izateko eta, batzuetan, jenteak ordaindu barik sartu gura dauala ez pentsetako. Eskerrik asko. Zure esanetara geratzen naz.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Gómez Viar. En el turno de réplica, señora Cabornero Alor, tiene la palabra.

La Sra. **CABORNERO ALOR** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días de nuevo.

Eskerrik asko, diputadu jauna, emon deuskuzuzan, gugaz partekatu dozuzan azalpenakaitik, eta erabili dozun doinua be eskertzen deutsut.

Gauza batzuk dagoz. Berbarako, zuk azterketa zabalagoa aitatu dozu, hauxe Tarifen Integrazinorako Batzordearen eskumena dala, BGP batzartu behar dala. Tira, nire eretxiz, arazo hau hemen egongo da: uste dot hasieratik erdibideratutako ABP onartu zala 2017an Talde Bereziagaz, Euzko Alderdi Jeltzaleagaz eta Euskadiko Alderdi Sozialistegaz. Erdibideratutako ABP hori Fekoorek bere egunean egin ebazan gomendioetan egoan oinarrituta, baina ez ziran egiten ebazan gomendio guztiak kontuan hartu, batzuk baino ez ziralako hartu. Izan be, besteak beste, garraio publikoan mobiduteko laguntzea behar eben desgaituen laguntzaile guztientzako, laguntzaile guztientzako bidaia-txartelaren ordainketaren ataleko proposamena baino ez, besterik ez zenduen kontuan hartu. Gero, ostera, Garraio Partzuergoak edo Tarifen Integrazinorako Batzordeak edo dana dalakoak akordu hori zatitu eban, eta gaur egun bidaia-txartelik ordaindu behar ez dabenak baino ez dira jotzen mobikortasun urrikotzat. Halanda be, zergaitik kontuan hartzen da mobikortasun urria bakarrik? Zergaitik zedarritzen da eskuzko gurrpil-aulkia erabili behar daben personetara bakarrik, motordunak sartzen ez diralako, eta erabateko itsutasuna edo parziala daukien personetara? Edozelan be, esan deutsudanez, mobikortasun urria, niri barregurea emoten deust, baina, mobikortasun urria abenduaren 23ko 1931/1999 Errege Dekretuan araututa dagoalako. Halanda ze, ez dago azterketa lar egin beharrik. Mobikortasun urrian, gurrpil-aulkiko erabiltzaileak jotzen dira mobikortasun urrikotzat; ibilteko orduan bastoi biren inguruko erabateko mendetasuna daukienak; ibilteko gaitasuna euki arren adimen-gabezia larrien ondorioz jokabide oldarkorrak edo gogaikarriak, gatx kontrolatuko modukoak, daukiezanak, horren ondorioz garraio bide normalizatuak erabiltzeko zailtasunak daukiezalako; eta, laugarrenez, egiaztatutako ikusmen-urritasun larria daukienak.

Edozelan be, bere egunean, BGPK edo dana dalakoak, laguntzaileek ez ordaintzeko neurriak giza talde horren zati bat ixten dau kanpoan. Ondo esan dozunez, eta pozgarria da hori entzutea, kontuan hartuko dozue, neurri hori osotzeko asmoa daukazue. Ez, ez da asmoa izan behar, ostera, osotu egin behar dalako. Izan be, inklusiboagoa eta bardintasunezkoagoa dan gizartea lortzeko asmotan, gaur bertan berbabide eta eztabaidagai daukagun kasuan jazoten dan lez, personen eta giza taldeen onurarako neurriak hartzen

diranean, ulertu egin behar dogu holako neurriek persona guztiak estaldu eta kontuan hartu behar dabezala ezelako salbuespen barik, euren desgaitasunaren edo preminearen ondorioz antzeko edo eragozpen zein zailtasun berberak daukiezalako. Hori dala eta, zuzenbide-tratu berbera lortu beharko leukie. Baleiteke gurpil-aulkia behar dauan nonork laguntzaileak behar izatea garraio publikoan lekualdatzeko, eta ulergarria baino ulergarriagoa da, baina, lehen azaldu deusuedanez, beste era bateko desgaitasunak daukiezanek be bai.

Gure eretxiz, Aldundiak, eztabaida hori BGPn bertan, Tarifen Integrazinorako Batzordean bertan edo behar dan lekuan bultzatzeko neurriak hartu behar dira, baina ez beste batek baino eskubide handiagoa nork daukan, zer desgaitasun dan handiagoa edo txikiagoa aztertzea, guztiak mobikortasun urriaren izendapenaren barruan sartzea baino, azaldu barri deusuedanez. Nire aldetik, besterik ez.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Cabornero Alor. En el turno de réplica, señor Gómez Viar, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **GÓMEZ VIAR** jaunak: Muchas gracias. Tira, ba, neuk azaldu deusudanaren eta zeuk erantzun deustazunaren haritik, erabat ados. Guk badakigu emoten diran egoera batzuek ez daukiena ezelako, tira, ba, ezelako marjinarik jazoten segiduteko. Beste barik, Bizkaibusen kasuan, persona horreek gurpil-aulkian ez badoaz, euren laguntzaileek ordaindu egin behar dabela.

Tira, ba, gaur egun, jenteak daukazan hainbat eta hainbat dibersidade funtzional dagoz. Esan deusudanez, ez dakit lehen agian ondo azaldu deusudan edo ulertu ez dozun, hau da, nik, Garraio Sailak, guk uste dogu gu ez garala zer persona eta zer eta zer baremo jarri behar diran erabagi behar dogunok. Nire eretxiz, hori BGPn jorratu behar da, askoz be eremu zabalagoa dalako, dalako. Bertan, ganera, hartzen doguzan neurriak berberak izan behar dira Bizkaiko garraiobide guztietarako, esan deusudanez, metroan, tranbian, Bilbobusen edo Bizkaibusen gauza desbardinak ezarri ez daitezkan eta oro har egin daiten. Hortxe eztabaidatu behar da, eta ezarriko diran neurri guztiak berberak izan beharko dira guztientzat. Horretan, errazoia emoten deusut, bat nator danagaz. Horrezaz ganera, esan egin gura deusut atzo bertan, eta minutu bat bera be ez galtzeko, BGPri bialdu geuntsala jakinarazpen laburra, batzorde hori batzartu daitela eskatzeko eta gai horreek jorratzen hasteko. Halanda be, esan egin gura neban apurtxu bat atera behar dala garraiobide bakoxtetik eta foro bateratura eroan behar dala, bertan erabagiten dana guztientzat baliozkoa izan daiten. Izan be, nire ustetan, horixe bera da segidu behar dogun eredia, ostantzean ez litzatekealako bape zentzunezkoa izango neurriak desbardinak izatea garraiobide batean edo bestean. Ganera, jakina, zeuk esaten zenduana, hau da, persona guztiek Bizkaian mobikortasunerako eskubidea daukiena bermatu behar da. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Gómez Viar. Como hemos comentado, se han retirado los puntos cuarto y quinto. Por lo tanto, el punto sexto:

El Sr. **SECRETARIO / IDAZKARI** jaunak:

6.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

6.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno
([R.E.11/E/2021/0001161](#))

Autor: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Asunto: La fatiga pandémica.

Documento

([R.E.11/E/2021/0001161](#))

Boletines: [Admisión a trámite](#) (62A)

Expediente: ([11/B/25/0002172](#))

Principal:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea
Osokoa ([11/E/2021/0001161SE](#))

Egilea: Fernández Angulo, Amaya (GM/TB-PPB)

Gaia: Pandemiak eragindako nekea

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001161SE](#))

Aldizkariak: [Izapidetzeko onartzea](#) (62A)

Espedientea: ([11/B/25/0002172](#))

La Sra. **PRESIDENTA / BATZORDEBURU** andreak: Señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Galderea egiten geuntsan Gizarte Ekintzako foru-diputaduari, giza talde zaurgarrienen artean neke pandemikoa prebeniduteko, igarteko eta aurka egiteko neurriak hartuko diran jakiteko eta, holan, etorkizunari begira nahasmendu emozionalak eta erantzun fisiologiko edo psikologikoak ez ugaltzeko, etorkizunean patologia larriagoak sortu edo azkartu daikiezala kontuan hartuta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Señora Presidenta, junteros/as, buenos días a todos/as.

PP Bizkaiako Talde Bereziko ordezkariak, Fernández andreak, neke pandemikoa dalakoa prebeniduteko, igarteko eta aurka egiteko neurriei buruz itantzen deust. Hain zuzen be, OMEk 2020. urteko urrian eta zemendian egindako alkarren segidako txostenetan zehaztu da, zehaztu da barriro, eta abian jarteko eskatzen dabe. Esan egingo dot Faktore Ugariko Plana era integralean ezarri dala arlo guztietan: osasuna, gizartea, kultura, ekonomia eta beste arlo batzuk. Egia esan, nire erantzunbeharpean dagoan sailak lotunea dauka pandemiaren eragina jasan ahal izan daben giza talde zaurgarri samarrakaz. Horrexegaitik, batez be, guretzat ez da urriko edo zemendiko kontua, eta lan egiten doguna jakinda, batez be gizarte-zerbitzuak persona batzuek beste persona batzuei emondako laguntzak dirana jakinda, gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileen arteko eta profesionalen arteko laguntza horreen albo biotan be ahalegindu gara bete-betean, gero Osasunaren Mundu Erakundearen esanetan “neke pandemikoa” dan hori prebeniduteko. Izan be, birusa ez igorteko eta, horren ondorioz, pandemiagaitik hartu behar izan diran neurriakaitik, murrizketa-neurriakaitik, personek jasaten dabezan eragin psikosozioemozionalakaz dauka zerikusia. Horrezaz ganera, esan egingo dot, aurretiazkoak be badiran batzuk aitzearren, besterik ez, gizarte-zerbitzuetako profesionalakaz aspalditik lan egiten dogula, txosten horreek baino lehenagotik be bai. Irailaren 29an, 773 lagunek prestakuntza batean parte hartu eben, egoitzetan konfinauta egozanen, isolatuta egozan erabiltzaileen gaitasun funtzionalak lantzeko. Beste ikastaro bat be badago, 2021eko zezeilaren 16 honetakoa, hain zuzen be. Bertan, Bizkaiko gizarte-zerbitzuetako 1.141 profesionalak emon eben izena, eta pandemiaren ondorioz sortutako eragin psikoemozionalaren kudeaketako jarduketa onak euki ebezan aztergai. Edozelan be, gure erantzunbehar zuzenagopean dagozan

profesionalei jagokenez, Bizkaiko Tutoretza Institutuan, Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean.

Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundean, 2020ko bagiletik, eurentzako arreta psikologikorako zerbitzua daukagu abian, taldekako eta banakako arretak; eta, Tutoretza Institutuan, profesionalentzako laguntza psikosoziala be bai.

Erabiltzaileei jagokenez, eta ez dodaz ahaztu gura, joan dan zemendiaren 10ean, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontsejuak foru-dekretu bat aldatu eban, diputadu honi behar besteko gaikuntzea emoteko eta, holan, gune gorrietan ezohiko neurriak hartu ahal izateko eta mendekoei nahiz euren jagoleei laguntzeko, hain zuzen be, Eusko Jaurlaritzak gune gorritzat jotako udalerrietan egozanean. Izan be, barriro be egoera berezian egozala eta arreta bereziak behar ebezala ulertzen genduan. Argitara emondako eta zemendiaren 12an indarrean sartutako dekretuko plan haretatik, 985 jarduketa baino gehiago eratorri dira, eta pandemiaren ondorioakaz daukie zerikusia. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Murillo Corzo. En el turno de réplica, señora Fernández Angulo, tiene la palabra.

La Sra. **FERNÁNDEZ ANGULO** andreak: Eskerrik asko, mahaiburu andrea. Azalpenak eskertzen deusadaz Gizarte Ekintzako foru-diputaduari. Izan be, agirikoa danez, berton gagozan guztiok badakigu eta, ezelako zalantza barik, zuk eta zure saila osotu eta eratzen dabenez be badakizue zelakoa dan pandemia eta bere ondorioak. Bere ondorioak suntsigarriak dira, eta eragin handi-handia daukie zati baten, batez be herritarren zati baten osasun mental eta fisikoan. Zeuk be nabarmendu dozu: persona zaurgarrienak, baita tratamendu berezia daukien gaixotasunaren ondorio zuzenak be, hau da, sortutako ondorio guztiak be bai. Zeuk be aitatu dozu. Mobiduteko murrizketak, lan-merkaduko eta osasuneko eraginak be bai. Lagun maiteen galerea.

Azken batean, danok ezagutzen dogun errealidade hori, nahiz eta danok jasaten ez dogula esateko suertea daukagun. Dana dala, agirikoa da jakintzat emoten genduan neurri horreetako batzuk oinarrizko eran garatuko zirana. Izan be, joan dan irailean danok jakin genduan, hori aitutzen eban informazinoa argitara emon zalako komunikabide batean, Euskadin azterlan aurrendaria garatzen egozana, neke kronikoa Covid-19aren ondorio moduan aztertzeke. Esparru horretan, neurri zehatzak bultzatzen hasi ziran instituzino batzuk.

Edozelan be, uste dot zuk zehetasunez azaldu deuskuzula, eta eskertzen deusut, joan dan bagiletik garatzen joan diran neurri guztiak. Dana dala, zeure agerraldiaren azken zatian aitatu dozunez, behar besteko gaitasuna daukazu, ezohiko neurriak bultzatu ahal izateko. Barriro erantzuteko txanda honetan, gustuko neuke, ondo ikusten badozu, danok horren barri euki daigun, zehetasunez nabarmentzea zer ekimen edo zer idea zehatz garatuko dozuzan, arlo horretako adituak eta jakitunak marrazten eta jakitera emoten jabilkuzan egoera horreek kontuan hartuta. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Fernández Angulo. En el turno de réplica, señor Murillo Corzo, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **MURILLO CORZO** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. He intentado explicar cuáles han sido las actuaciones que hemos desarrollado hasta ahora, y entre las personas usuarias. Alde horretatik, jarduketei jagokenez, OMEk berak neke pandemikoa zer

izan beharko litzatekean, zer dan azaldu dau, eta 4 elementu, 4 tresna zehaztu dauz, horren inguruan lan egiteko, alkarri laguntzeko, neka pandemiko hori jasaten dabenei ulertzeko filosofia hori be kontuan hartuta. Hortik harago, guk dekretu bat aldatu genduan zemendiaren 10ean, eta prozesua jarri genduan abian, sailetik bertatik mendekoei eta etxean jagoten dabezanei deitzen hasteko.

Dei horreetatik guztietatik, eta gaur egun be deitzen segiduten dau sailak, 985 jarduketa eratorri dira, hau da, 985 lagun izan dira jarduketa horreen helburu. 644 zabalik dagoz oraindokarren, eta, euren artean, ondorio agirikoena, gura badozue, zeri buruz nabilen berbetan modu grafikoan ulertzeko, gaur egun 30 lagun dagoz laguntza psikologiko profesionalean, askotan etxola-sindromea daukien jagoleak, eta ez da barria, ez da pandemia honengaitik, baina jagoleek jasaten daben etxola-sindromeak aurreikusi, aurreratu egiten dau zer jazo daitekean kanpora urteten badabe; edo atsedean hartzeko eguneko zentroan 15 egunetan 14 laguni emondako erantzuna; edo egoitzan 18 laguni emondako atsedena. Horra hor erantzun batzuk. Horrezaz ganera, orientazinoa eta udaleko gizarte-zerbitzuetara bideratzeko prozesua edo JBPen, jarduketarako banakako planen, aldaketak, pandemiaren ondorioz be bizi eben egoera barrirako erantzun onena lez.

Halanda ze, zemendiaren 10 haretatik aurrera, ezin konta ahala neurri jarri ziran abian. Gaur egun, ganera, abian segiduten dabe, oraindokarren gune gorrian dagozan udalerriak dagozalako. Jarduketa batzuk zabalik dagoz, oraindokarren zabalik dagoz, jarraipenerako jarduketak daukiezalako. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Murillo Corzo. Muchas gracias. Punto séptimo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

7.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno [\(R.E.11/E/2021/0001210\)](#)

Autor: Rahona Garay, Iker (EHB)

Asunto: La realización por parte de la empresa belga VGP de un parque logístico en los astilleros de La Naval de Sestao.

Documento

[\(R.E.11/E/2021/0001210\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0002180\)](#)

Principal:

7.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan [\(11/E/2021/0001210SE\)](#)

Egilea: Rahona Garay, Iker (EHB)

Gaia: VGP empresa talde belgikarrak Sestaoko La Navaleko ontziolan parke logistikoa egitea

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0001210SE\)](#)

Espedientea: [\(11/B/25/0002180\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Rahona Garay, tiene la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Joan dan martiaren 9an, egunkarien bidez emon zan jakitera VGP talde belgikarra, parke logistikoen eraikuntzan eta salmentan espezializautako enpresa-taldea, La Navalen kokagunea ziran lursailen esleipenduna zala. Jakinarazo egiten zan eskaintza onena aurkeztu ebala Sestaoko ontziolen likidetako prozesuan. Ganera, kopuru ekonomikoa be emoten eben: 36 milioi euro, lur-zatiak daukan 300.000 metro karratuko azalera osorik erosteko.

Bizkaiko bilakaera ekonomiko eta sozialari begira oso eragiketa garrantzitsua dala kontuan hartuta, guretzat beharrezkoa da Basurko andreak, Ekonomia Sustatzeko diputaduak, azaltzea Bizkaiko Foru Aldundiak behar besteko informaziorik daukan VGP enpresa belgikarrak Sestaoko La Naval ontziolen lursailetan egin gura dauan parke logistikoari buruz. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Rahona Garay. En el turno de réplica, señora Basurko Urkiri, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Señor Rahona, tal y como lo hemos manifestado en estas Juntas Generales en muchas otras ocasiones, el canal de comunicación entre el Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia suele estar abierto permanentemente, para compartir información y colaboración en relación a las empresas que están en crisis. Respecto a La Naval y respecto al procedimiento concursal surgido, hemos estado permanentemente en comunicación entre las dos instituciones, así como con el Ayuntamiento de Sestao.

En ese sentido, en este caso en concreto, el Gobierno Vasco nos ha informado respecto a los contactos y las reuniones que han mantenido con VGP. En esos contactos, han recibido información concerniente a los proyectos que han llevado a cabo en distintos países y en diferentes comunidades autónomas de España, presentándose como proveedores de inmuebles industriales y logísticos.

Por otra parte, la empresa VGP, como le corresponde, ha manifestado su compromiso con el cumplimiento de las condiciones urbanísticas vigentes que se recogen en la normativa aprobada por parte del Ayuntamiento de Sestao para el ámbito de La Naval.

Era berean, VGP enpreseak berak egindako eta argitara emondako jakinarazpena ezagutzen dogu, eta, bertan, honako gauza bi honeek adierazoten dauz, besteak beste:

1. VGPK jarduera industrialak helburu nagusi daukazan parke barrirako daukazan etorkizuneko planetan, lehendik egozan elementuak hartuko dira kontuan, antxinako ontziolen ezaugarri esanguratsuenetako batzuei eusteko.

2. Urteen joan-etorrian, VGPK La Navalekoaren parekoak izan daitezkezan proiektu asko garatu dauz Bilbon, eta helburu nagusia beti izan da batez be tokiko enpresei eta industria tradizionalari zerbitzua emotea, abangoardiako instalazino moderno barrien bidez.

Puntu bi horreek argitara emon daben jakinarazpenetik aterata dagoz.

Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, geure apustua berresten dogu, inguruko jarduera industrialari eusteko eta, ezin da beste era batera izan, Sestaoko Udalak onartutako urigintza-araudia beteteko. Oso ondo ikusten dogu kokagune horretan jarduera industrialen bat

garatu gura daben enpresa pribaduek euren artean berba egitea, itsasontzien eraikuntzak eta itsas parke eolikoak edo beste jarduera industrial batzuk helburu daukiezan beste batzuk be egiteko aukerak ahal danik eta gehien aztertzeko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplica, señor Rahona Garay, tiene la palabra.

El Sr. **RAHONA GARAY** jaunak: Muchas gracias, de nuevo. Tira, lehenengo eta behin, eskerrik asko Basurko andreari bere azalpenakaitik. Beti esaten dodanez, agerraldi-formatu honetan, egia esan, denporeak ez dau askotarako emoten, gaian sakondu ahal izateko. Halanda be, egia esan, batzuetan behintzat, gero proponidu geinkezan beste ekimen batzuetan garatzeko asmotan kontuan hartu daikegun izenburu interesgarriren bat ixten deusku.

Tira, lehenengo eta behin, eskerrik asko, emon deuskuzun informazioaren barruan, baieztu egin dozulako Bizkaiko Foru Aldundia, hain zuzen be, eten barik egon dana hartu-emonetan Eusko Jaurlaritzeagaz, esleipenerako prozesuan enpreseagaz egiten egozan kudeaketeari buruzko informazioa zuzen-zuzenean jasoteko.

Egia esan, ez da askoz gehiago be argitu, komunikabideen bitartez jentaurrean jakitera emon dan informazioari jagokonez. Galderea egiten geuntsuen, egia dalako Eusko Jaurlaritzako ordezkari instituzional batzuek adierazpenak egin dabezana jentaurrean prozesua zelan joian azaltzeko eta ziur ez genkialako zein zan Bizkaiko Foru Aldundiaren jarrera eta zuk zeuk autortu egin deuskuzu jarduera industrialari eusteko apustua egiten dozuna. Egia da hori bat ez datorrena lizitazio-prozesu honegaz eta, hasiera batean, talde belgikar horren helburuagaz edo soziedade-izenagaz eta jardureagaz, azken batean egia dalako parke logistikoetan bertan biltegiak sortzeko prozesura mugatzen dana.

Halanda ze, ez dakit oso ondo zelan lagunduko deuskun enpresa pribadu baten proiektu honek jarduera industrialari eusten, eta ni neu gaurko egunean tribuna honetatik ia-ia baieztetan ausartuko nintzateke behin betiko galdu doguna, hau da, ontziola honetako itsasontzi handien ekoizpena, herrialdean geunkan azken ontziola handia

Bai, egia da joan dan asteko Osoko Batzarrean politika industrialari buruz berba egiteko aukerea euki genduana. Uste dot EH Bildukook argi baino argiago itxi genduala guretzat apustu estrategikoa dana politika industrial garapen ekonomiko eta sozialaren sustatzailea izatea, bai Bizkaian, herrialde-mailan, bai Euskal Herrian bertan, agirikoa danez. Hori dala eta, barrero dinot, zuk, Basurko andrea, egiten zenduan asmo onen adierazpen horregaz geratzen naz, hau da, Bizkaiko Foru Aldundiak eta, zuk, Ekonomia Sustatzeko Saileko arduradun moduan, jarduera industrialari eusteko apustua egiten dozuela.

Gu geu aspaldi-aspalditik gabiliz eskatzen berrindustrializaziorako plan hori jarri behar dala abian, garatu eta abian jarri behar dala, eta, zer esanik ez, 4.0. industriaren ondorioz sortutako premia teknologiko eta profesional barrietara egon behar da egokituta. Prest gaukazuz, alkarregaz eta Ganbera hau osotzen daben generako indar politikoakaz lan egiteko, norabide horretan lan egiteko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Rahona Garay. En el turno de réplica, señora Basurko Urkiri, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, de nuevo, señora Presidenta. Sí, resumiría en 4 puntos lo que hemos dicho, lo que hemos compartido, ¿no? Por una parte:

1. Erakunde publikook prozedura konkursalaren hasieratik lan egin dogu, ontzigitzeari jarraipena emon gura eutsien inbersinogileak bilatzeko edo, besterik ezean, ahal danik eta jarduera handiena eta lanpostu gehien sortzen dauzan proiektu industrialak egituratzeko. Prozesu osoan.

2. Aurrekariak, kokapena eta kokalekuaren ezaugarriak kontuan hartuta, garrantzizkoa da nabarmentzea La Navaleko lursailak bokazino industrial argia daukala, eskusiboa ez dan arren, eta holantxe azaltzen da urigintzako plangintzan, garrantzitsua, urigintzako plangintzan.

3. Behar besteko apustua egiten dogu, bertan jardueraren bat garatu gura daben enpresa pribaduek euren artean berba egin daien eta itsasontzien eraikuntzak, itsas parke eolikoak zein jarduera industrialak be egiteko aukerak arakatu daitezkan.

4. Gu geu be, instituzino guztiok, erabat prest, esleipendunagaz batzartzeko, behin betikoa danean, baita alkarregaz lan egiteko be, ahal dogun neurrian, zuoi eremuaren izaera industrialak maximizetea zeinen garrantzitsua dan azaltzeko eta horren ondorioz sortutako proiektua ahal danik eta asmo handienekoa izateko, lanpostuen eta jarduera ekonomikoaren sorrerari jagokonez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. Punto octavo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

8.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno
[\(R.E.11/E/2021/0001235\)](#)

Autor: Montes Uña, Endika

Asunto: Alto Horno de Sestao.

Documento

[\(R.E.11/E/2021/0001235\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0002194\)](#)

Principal:

8.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan [\(11/E/2021/0001235SE\)](#)

Egilea: Montes Uña, Endika

Gaia: Sestaoko Labe Garaia

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0001235SE\)](#)

Espediente: [\(11/B/25/0002194\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Montes Uña, tiene la palabra.

El Sr. **MONTES UÑA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. El pasado día 27 de febrero, la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial y Obra Pública tuvo conocimiento de que supuestamente se estaban sustrayendo objetos del Alto Horno de Altos Hornos de Bizkaia en Sestao, transportados en carritos de supermercado y carretillas.

Tras la aprobación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco, el Alto Horno está inscrito en el Registro del Patrimonio Cultural Vasco de la Comunidad Autónoma, como bien cultural de especial protección. Por ello, planteamos la siguiente pregunta a Lorea Bilbao, Diputada Foral de Euskera, Cultura y Deporte: ¿Qué pasos va a dar la Diputación Foral de Bizkaia para la conservación y la puesta en valor del Alto Horno de Sestao? Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Montes Uña. En el turno de réplica, señora Bilbao Ibarra, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Sí, muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

Al plantear su pregunta, ha citado dos ámbitos, señor Montes Uña. En primer lugar, se ha referido a esa sustracción, y ha sido así, se han sustraído varias cosas. Lo que hemos hecho ahí es que desde el principio hemos conocido los pasos que ha dado la Asociación Vasca de Patrimonio Industrial, hablando con ellos/as. También nos hemos reunido con la Ertzaintza, y hemos acudido con ellos/as, incluso al propio lugar, para ver cuáles han sido...

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Bilbao, disculpe, espere, por favor. Señor Montes Uña, siéntese, vamos a tomarnos un tiempo para regresar luego. Si no... Disculpe, muchas gracias. Continúe.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Sí, desde el Servicio de Patrimonio acudimos allí con la Ertzaintza, para realizar una valoración y poder valorar los daños. Además, también nos hemos reunido con el Ayuntamiento y con el Gobierno, y vamos a continuar estando pendientes hasta saber qué ocurre.

Además, respecto a la segunda parte, he de decir que para este año, para 2021, no contamos con ninguna partida especial, y no es algo que se haya decidido a la ligera, sino que se debe a que en este momento ese Horno tiene dueño y es ese dueño quien se está encargando de su reparación y mantenimiento. Por tanto, nuestra intención sería esperar a que se realicen esos trabajos de reparación y, una vez que se hayan realizado los trabajos de reparación, se decidirá, siempre en el marco de nuestras competencias y de acuerdo con el resto de instituciones, cuáles pueden ser los pasos más adecuados para poder ponerlo en valor.

También he de comentar que también ese entorno del Horno tiene dueño y que ya se ha sacado a licitación, para que esa zona se convierta en espacio, parque de uso público. Por ahora, creo que no tengo nada más que decir. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Bilbao Ibarra. Señor Montes Uña, tiene la palabra.

El Sr. **MONTES UÑA** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días, de nuevo. Muchas gracias por su respuesta.

Como saben, desde EH Bildu hemos registrado una proposición no de ley en el Parlamento, para defender, mantener y poner en valor el Alto Horno de Sestao y así llevar a cabo un proyecto directo de mayor envergadura.

EH Bildukook ez dogu Bizkaiko XX. mendeko sinboloetako bat galtzerik gura, 80ko hamarkadako birmoldaketa industrial gogorra baino lehen lanpostu zuzenetan lan egiten eben 11.000 lagun eukazala kontuan hartuta. EH Bilduren ustetan, Euskal Kultura Ondareari buruzko Legea autortu bada be, ez da bermatu Laba Garaia behar dan moduan artatu eta babestuko danik.

Galderan esan dogunez, Industria Ondare eta Herri Laneko Euskal Alkartek salatutakoaren arabera, arpilaketea garatu barri da, eta, bertan, objektu batzuk lapurtu dira: kableak, presinoa neurtzeko manometroak, brontzeko elementuren bat eta agente-panelak. Horrezaz ganera, kalteak egin deutseez instalazinoei.

Eusko Legebiltzarrean, EH Bildukook Lakuako Gobernuari eta Bizkaiko Aldundiari eta Sestaoko Udalari eskatu deutsegu arpilaketa hori ekiditeko neurriak hartu daiezala. Orain arte mobiduten hasi ez baziran be, gure presinoari eta gure ondarea ez galtzeko burrukan dabilzan alkarteei esker, mobiduten hasi dira. Mobiduten segiduteko eta gu geu kontuan hartzeko eskatu gura deutsegu.

Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen arabera, Gobernuari eta, kasu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen deutsegu behar besteko aliantzea, fundazioa edo antzekoa sustatu daiela administrazino publikoen eta erakunde pribaduen artean, Laba Garaia defendiduteko, artatzeko eta bere balioa nabarmentzeko, Sestaoko Udaleko proiektua eta Eusko Jaurlaritzek berak agindutako jarduketa-plana kontuan hartuta.

Era berean, EH Bildukook proponidu egiten dogu lanaren arloan herri honen historia osotzen daben elementu materialak berreskuratzea; iraultza industrialeko tresnak eurak, barbarako. Alde horretatik, eskatu egin dogu, gure oroimenaren oinarria diran neurrian, Eusko Jaurlaritzea egiten dabilen ondasun kultural immaterialen mapan agertu daitezala.

XIX. eta XX. mendeetan, itsasadarreko bazterretan, galdu ezin dogun jarduera industrial bizi-bizia garatu zan. Belaunaldi barriek euren historia eta euren ondare kulturala ezagutu behar dabez, baina aisialdiko turismoa, zelai logistiko handien instalazinoa eta urigintzako garapenak bakarrik ezagutzeko arriskua daukie, eta, bertan, etxebizitzien kopurua zein etekinak dira nagusi. Bizkaiko Laba Garaietako Laba Garaia gure ondare industrialeko altxorra da, eta, babestu ez eze, bere balioa be nabarmendu beharko litzateke. Monumentu hori, ostera, narriatzen dago itxikeria instituzionalaren aurrean. Ondare industrialaren katedrala zoroetxe bihurtzeko arriskuan dago.

EH Bildukook instituzinoei eskatzen deutsegu arpilaketea ekiditeko neurriak hartu daiezala, gure eretxiz ez dalako bermatu behar dan moduan artatu eta babestuko danik. Por favor, salvemos nuestro patrimonio, salvemos nuestro Alto Horno.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Montes Uña. En el turno de réplica, la portavoz de la Diputación, vamos a esperar a que el señor Montes Uña se siente, pero tiene la palabra, señora Bilbao Ibarra.

La Sra. **BILBAO IBARRA** andreak: Montes Uña jauna, nik neuk ez dot zalantzan jarten, inoiz be ez litxakit otuko asmo oneko jente eta alkarte horreek guztiek euskal ondare kulturala babesteko daukiezan interesa eta borondate ona zalantzan jarrea. Edozelan be,

jakina, ez dot onartuko inork gure instituzinoko eta generakoetako zerbitzu teknikoen egikera ona eta interesa be zalantzan jartea.

Hori esanda, Bizkaiko Foru Aldundiak, aitatu dodazan instituzinoei jagokezan jarduketak garatutakoan eta Laba Garai hori berreskuratzeko azken fasea ezarritako dagoana jakinda eta egiaztata, ikusiko dau, betibe, bere eskumenen barruan eta generako instituzinoakaz lan eginda eta adostuta, zelan lagunduko dauan zuk aitatu dozun ondare hori zabaltzen eta bere balioa nabarmentzen.

Para concluir, solo decir que la Diputación Foral de Bizkaia está dispuesta, como no puede ser de otra manera, como hasta ahora, a ofrecer toda la asesoría y a trabajar conjuntamente, pero no vamos a meternos en casa de nadie a pesar de estar dispuestos/as a colaborar.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora Bilbao Ibarra. Punto noveno del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

9.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001237](#))

Autor: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Asunto: Valoración del desmantelamiento de La Naval.

Documento

([R.E.11/E/2021/0001237](#))

Expediente: ([11/B/25/0002195](#))

Principal:

9.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001237SE](#))

Egilea: Benito Ziluaga, Xabier (EB)

Gaia: La Navalen deuseztapenari buruzko balorazioa

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001237SE](#))

Espedientea: ([11/B/25/0002195](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señor Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Buenos días, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Martiaren 9an, martitzena, argitara emon zan albistearen arabera, parke logistikoak sustatu, alogadu eta saldu egiten dauzan VGP talde belgikarrak Sestaoko antxinako ontziola likidetako prozesua irabazi dau.

Beste enpresa batzuek adierazo dabenez, eskaintza honek ez dakar plangintza industrialik, eta, Eusko Jaurlaritzako ordezkariak berak adierazo dauanez, “jarduera industrialak garatzen eban eskaintzea eukiko eban gustukoago”.

Gure eretxiz, iragarki honek Bizkaiko Foru Aldundian be badauka eraginik, eta, lehenengo eta behin, inplikau egin beharko litzateke, Sestaoko La Navaleko lursailetan lurralderako aukera onenak bultzatzeko. Bestetik, era zuzenagoan, erabagi horrek Sestaoko Udala eta Foru Aldundia inpliketan dauzan Sestao Bai parkearen etorkizunean be badauka eraginik.

Hori dala eta, zera itantzen dogu:

Bizkaiko Foru Aldundiak zer neurri jarri dauz abian, Sestaoko La Naval buruzko azken albistei jagokenez eta industria argi eta garbi desegiteko ingurunean kokatutako Sestao Baiko etorkizuneko enpresa-parkeari jagokonez? Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplica, señora Basurko Urkiri, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as, de nuevo.

Neure aurreko agerraldian jakinarazo dodanez, VGP enpresek jentaurrean adierazo dau Sestaoko Udalak La Navalen arlorako onartutako indarreko arautegian zehaztutako urigintza-eskakizunak beteteko konpromisoa, baita bere etorkizuneko planak jarduera industrialak helburu nagusi daukazan parke barri batean zehazten dirala be.

Halanda ze, une honetan, ezin da baieztu talde belgikarrak, ondasunak esleitzen diranean, parke logistikoa bakarrik garatuko dauana.

Insisto, y así lo ha corroborado también el Ayuntamiento de Sestao, las actividades que se ubiquen en el ámbito de La Naval se deben adaptar a los usos que se establecen en el Plan Urbanístico General de Sestao.

La Diputación Foral de Bizkaia ha mostrado durante muchos años su compromiso e implicación con el mantenimiento y consolidación de actividades industriales en la zona de Sestao.

Ganera, egiaztatu be egin eban, sei milioi euroko ekarpenaren bidez Sestao Bai soziedadearen eraketan inplikatu zalako Sestaoko Udalagaz batera. Udalak, hain zuzen be, bere jaubetzako lursailak jarri ebazan, Sestaoko udalerriko Uri Antolamenduko Plan Orokorrean, "Naval" 19. banaketa-gunearen arloan zehaztutako iparraldeko industrialdean urigintzako jarduketak bultzatzeko eta garatzeko eta, holan, udalaren jaubetzako lursailen balioa nabarmentzeko.

Holantxe garatu ziran urigintzako izapideak, Vicinayko kokagunea barriro zatitzeko, La Navalen lehendik egozan instalazioak sendotzeko, euren erabilera industrial indartzeko eta Sestao Bai industrialdea garatzeko. Horretarako, urigintzako kasuan kasuko kargak onartu ziran, 12 milioi eurotik gorakoak, eta honako honeetxek egozan euren artean: lurzoruetako kutsadurea garbitzeagaitiko kostuak, etxebizitzaren eraispentak eta jaubeen birkokapentak nahiz eurentzako kalte-ordainak, aparkalekuaren eraikuntzea eta urbanizazioa. Horretarako, Sestao bai soziedadeak Aldundiak abalau dauzan 12 milioi euro baino gehiago hartu ebazan bere gain urbanizazioaren obretan, eta, horri esker, bide-zerbitzuak eta generako zerbitzuak emon jakez arlo horretako enpresa guztiei.

Beti-beti lan egin da, beti-beti lan egin da, Sestaora balio erantsiko enpresa industrialak erakarteko, ITP Aero, berbarako, eta industrialdean egozan enpresei handitzeko erraztasunak emoteko, Euskal Forgingen kasuan, esaterako.

Por tanto, creo que la Diputación no tiene que demostrar nada respecto al mantenimiento de actividades industriales en el municipio de Sestao y su entorno. Lleva muchísimos años trabajando, y continuará haciéndolo. Vamos a continuar apostando por el

mantenimiento de la actividad industrial en esta zona, siempre teniendo presentes y cumpliendo las normativas urbanísticas aprobadas por el Ayuntamiento de Sestao. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. En el turno de réplica, señor Benito Ziluaga, tiene la palabra.

El Sr. **BENITO ZILUAGA** jaunak: Eskerrik asko, Basurko andrea, azalpenakaitik. Hara, nik neuk ezin dot neure tristurea ostendu Sestaoko La Navalek euki dauan amaieareagaitik. Nire ustetan, oso-oso esaldi errazean laburtu daiteke, hau da, ontzigtintzea ixtea erabagi dogu, Aliexpressseko kaxak banatzeko. Horren latza da errealdadea, gure eretxiz.

Uste dot faktore asko dagozala, baina euskal instituzinoei gehien jagokena, eta egoera honetara eroan gaituana, handigurrearen faltea da, handigurrearen faltea, politika industrialean esku hartzeko orduan, azken batean horixe dalako hona eroan gaituana. Jakina, orain, nire eretxiz, emon dozun erantzunari erreparauta, emoten dau zer jazoko zain dagoala Aldundia, zeozelan esatearren. Lehen esan dodanez, proiektu industrialak gurago ebalatu esan eban Eusko Jaurlaritzak. Uste dot berba horreek egitateakaz bat ez datozala, ezta zuk zeuk Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik adierazoten dozun ikusita be. Nire ustetan, hobe zan egin izana guragoa izana baino.

Hori dala eta, azkenean, itaun honen bidez, jakin egin gura genduan zer ekintza garatuko dozuezan zuok, baina, era berean, konbidau, eskatu egin gura genduan neurriak, ekintzak abian jarteko eta gai honetan jarrera proaktiboa eukiteko, VGP enpresek zer egingo ete dauan zain geratu barik.

Zure esanetan, ezin da adierazo parke logistikoa bakarrik izango danik. Halanda ze, uste dot egin daitekeala, eurek aurkeztu daben proiektua da-eta. Egia da UAPOgaz bat ez datorrena, bertan lursailen %51 4. eta 5. muerako industriarako erabili behar dirala esaten dalako, hau da, industria handirako, baina, tira, zeuk be enpresek atera dauan jakinarazpena irakurri deuskuzu lehen. Ezaugarri batzuei, ontzioletan ezaugarri bereizgarri batzuei eutsiko ei deutsee. Izan be, hori dala eta, nik neuk ulertu egin daiket eraikin horreetako bat itxiko dabela, ondare-babesa emongo jakela. Nik, horren bidez gauza asko ulertu daikeguz, baina benetan ulertu gura doguna eta jazotea gura doguna jarduera industrialari eustea bada, horretarako ezinbestekoa da instituzino publikoak orain arte ikusi doguna baino gehiago inplikatea, inbersinogile bila baino ez diralako ibili eta askoz be gehiagorik ez.

Sestao Baiko enpresa-parkeari jagokonez, badakit zeinen garestia izan zan. Orain arrisku handiangoan dagoala ikusten dogu. Bertako okupazioa urria da, eta, orain, arrisku handiangoan dago, lehenengo eta behin inguruko industriak hutsitu egin diralako eta, bigarrenez, zuok zeuk autoEEP areriorsua be egin deusazuelako enpresa-parke horri Ezkerraldeko Parkea eregitean.

Azken batean, ez dogu etorkizuna argi ikusten, eta gai hau jorratzen segiduko dogu, eskatzen doguzan neurri horreetako inplikazioa ikusteko, batez be. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Benito Ziluaga. En el turno de réplica, señora Basurko Urkiri, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **BASURKO URKIRI** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Señor Benito, creo que ha confundido muchas cosas diferentes y datos, no de una manera muy directa. Yo quisiera que se quedaran con dos ideas. Una, Aldundiak, Sestaoko Udalagaz batera, lanean segiduten dau Sestao Baiko industrialdera enpresak erakarteko formula barrien bila. Horretarako, udal-arauegian aurreikusitako erabilerak errespetetan dauz, bertan industria arinaren eta jarduera komertzial zein mistoaren erabilerak zehazten diralako, era bateko eta besteko lur-zatien arabera. Bide horretatik lan egiten segiduten dogu. Bigarrenez, aurreko agerraldian esan dodana aitatuko dot barriri: gu geu erabat prest gagoz. “Gu geu” dinodanean, euskal instituzinook erabat prest gagoz, jaube barriakaz batzartzeko eta, ahal dogun neurrian, alkarregaz lan egiteko. Hain zuzen be, esan egingo deusagu zeinen garrantzizkoa dan eremuaren izaera industriala maximizetea, horren ondorioz sortutako proiektua ahal danik eta asmo handienekoa izan daiten, La Naval ingururako lanpostuen eta jarduera ekonomikoaren sorrerari jagokonez. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Basurko Urkiri. Punto décimo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

10.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001242](#))

Autor: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Asunto: La decisión de la Comisión Europea de considerar ayudas de Estado, el régimen fiscal al que hasta el año 2016 estuvo sujeto el Athletic Club, junto a otros tres clubes de fútbol.

Documento Principal: ([R.E.11/E/2021/0001242](#))

Expediente: ([11/B/25/0002197](#))

10.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001242SE](#))

Egilea: De Madariaga Martín, Eneritz (EB)

Gaia: Europako Batzordeak hartu dauen erabagia, zeinen bidez Athletic Clubek, beste hiru futbol klubegaz batera, 2016. urtera arte bete behar izan eban zerga-araubidea Estatuko laguntzatat jo dan

Dokumentu Nagusia: ([11/E/2021/0001242SE](#))

Espediente: ([11/B/25/0002197](#))

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Tira, zuok dakizuenez, orain dala gitxi Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak Europako Batzordearen erabagia berretsi dau, eta, bertan, Estaduko laguntzatat jotzen dau Athletic Clubek, Espainiako beste 3 futbol-taldegaz batera, 2016. urtera arte euki eban zerga-araubidea. Oraindokarren taldea irabazi-asmo bako alkarte pribadua danez, zeozelan lortu dau Soziedadeen ganeko Zerga generako taldeek baino zerga-tasa txikiagoan ordaintzea. Halanda be, egia da zerga-abantaila hori 2016. urtean desagertu dana, 6/2016 Foru Araua indarrean sartu ostean. Epai horren arabera, diru hori itzuli beharra dago.

Halanda ze, diputaduari itandu gura deusagu Foru Aldundiak zer urrats emon dauzan edo emongo dauzan, Athletic Club de Bilbaok jaso ebazan legez kanpoko laguntza

horreek berreskuratzeko, eta, bere eretxiz, zenbatekoa izango dan altxor publikoan itzuli beharreko zenbateko hori eta zein izango dan itzultzeko epea. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, señor Iruarrizaga Artaraz, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as. Lehenengo eta behin, De Madariaga andrea, nik neuk ondo baino hobeto dakit zuk badakizuna nik ezin deusadana egiten dan galdereari erantzun, zergadun zehatz bati buruzkoa dalako, baita zerga-administrazioak horren inguruan garatutako jarduketari buruzkoa be. Zergaitik dinotsut hori? Honako hauxe xedatzen dalako Zergei buruzko martiaren 10eko 2/2005 Foru Arauaren 94.1. artikuluan: “bere eginkizunak garatzean zerga-administrazioak erdiesten dauzan datuak, txostenak eta aurrekariak izaera erreserbaukoak dira, eta esleitutako kudeaketapean daukazan zergen edo baliabideen benetako ezarpenerako bakarrik erabili ahal izango dira, baita bidezkoak diran zehapenen ezarpenerako be. Hori dala eta, ezin izango dira laga edo jakinarazo”. Halanda ze, barriro be, Aldundi honi itantzen jako ordenamentu juridikoaren ondorioz erantzun ezin doguzan gaiei buruz, izaera erreserbaukoak diran datuak publiko egitea dalako asmoa.

Edozelan be, bigarrenez, Europako Batzordearen garagarriaren 4ko erabagiaren betearazpenari jagokonez, zeure galderan aitatzen dozuna da-eta, gogoratu egin gura deusut Batzar Nagusiok urriaren 19ko 6/2016 Foru Araua onartu ebela, eta, horren bidez, erakunde zehatz batzuen zerga-tratamentua aldatzen da, Europar Batasunaren zuzenbidearen arabera.

Alde horretatik, kontuan hartu beharra dago Europar Batasunaren zuzenbidean, gure zuzenbidean jazoten ez dan lez, ez dala aurreikusten, Europar Batasuneko auzitegietan Batzordearen erabagien aurkako errekursoak aurkezten diranean, betearazpena eten egin behar danik. Hori dala eta, auzitegien aurrean errekursoa aurkezteagaitik erabagia irmea ez bada be, estatu kideetako agintari eskudunek derrigorrean betearazo behar dabe erabagia, berreskuratzeko prozesua jarri behar dabe abian eta Batzordearen erabagian proponiduten ziran ganerako neurriak hartu behar dira epearen barruan. Gure kasuan, 2016. urtean, 4 hilebetekoa izan zan.

Alde horretatik, adierazo egin deikezut Bizkaiak betearazo egin ebala, zeure galderan aitatzen dozun Batzordearen gogara bete-bete eukan epearen barruan, Batzordearen 2016. urteko erabagi hori. Era berean, adierazo egin gura deusut 2016ko zemendiaren 29an Batzordeak modu ofizialean jakinarazo euskula, Espainiak Europar Batasunean daukan ordezkaritza iraunkorraren bidez, behar besteko informazio guztia jaso ebala, Bizkaiko Lurralde Historikoko erakunde eskudunek, euren eskumenen esparruan, 2016ko garagarriaren 4ko erabagi hori behar dan moduan betearazo ebela kontuan hartzeko. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. En el turno de réplica, señora De Madariaga Martín, tiene la palabra.

La Sra. **DE MADARIAGA MARTÍN** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta.

Tira, bai, egia da badakidana datu batzuk emon ezin dozuzana indarreko legeria guztian zehazten dan datu-isilekotasunagaitik. Dana dala, eskatu egin gura geuntsun, eta azalpenak eskertzen deusudaz, zenbatekoa benetan itzuli dan, itzultzeko epeari jagokonez. Halanda ze, eskertzen deusut. Eskertu egiten deusut, batez be, Europar Batasunaren erabagia eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegi Nagusiaren osteko epaia irakurtean, norberak irakurtean ikusi egiten dalako zein izan dan be Bizkaiko Foru Aldundiaren defentsa-jarrerea, zer argudio erabilten ebazan Athletic Taldeak, eta agirikoa da zeozelako abala igarten zana, egiten zan baieztapen ha, hau da, ez egoala zer itzulirik, ez zalako ezelako etekinik egon.

Hori kezkarri samarra zan gure taldearentzat, Foru Aldundi honek asko-askotan daukalako zeozelako mesede-tratua VIP zergadun batzuekaz, eta ez dinot esatearren. Hau da, holantxe egiaztetan daben egitateak dagoz; esate baterako, 2012. urtean zerga-zorrak atzeratu ziran, edo alkarren segidako ekitaldietan milioi askoko dirulaguntza zuzenak emoten joan dira, lursailak laga dira, partaidetza publikoak dagoz azpiegitura barrietan, edo, azkena, 2019ko errenta irregularrei buruzko dekretutzarra. Hori dala eta, zalantza handiak geunkazan, Foru Aldundi honek egokonaren arabera jokatu ete eban, eta barriro dinotsut, Aldundiak berak aurkeztu ebazan alegazinoetan zuok egin zenduezan adierazpenakaitik, batez be.

Edozelan be, emondako informazinoa eskertzen deusut. Besterik ez. Eskerrik asko.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias, señora De Madariaga Martín. En el turno de réplica, señor Iruarrizaga Artaraz, portavoz de la Diputación, espere, por favor. Espere, espere, espere, Iruarrizaga, espere.

El Sr. **IRUARRIZAGA ARTARAZ** jaunak: Hara, De Madariaga andrea. Zuk jarten dozun arreta hori, Bizkaiko zergadun honegaz daukan, antza, zeuk dinozunez, nik neuk erabat ukatzen dot-eta, tratu horrengaitik. Ez dakit, uste dot zelai publikoa erabilten dabilzan lehen mailako futbol-talde gehiago dagozala Euskal Autonomia Erkidegoan, eta inork ez dau ezer itandu, eta zuk ez dozu ezer egiten. Zuk ez dozu itantzen beste 3 taldeen zerga-administrazioek betebehar hori bete daben, bertan hori egiten bada be, etab., etab. Halanda ze, zuok ez dagozan gauzak ikusten dozuez, justifikau egiten diralako. Uste dot zeuok be izan ziniela bere egunean San Mames barria eregiteagaitiko salaketea Europan aurkeztu zenduenak.

Honen guztionen jatorria 1990. urteko legea da, Estadukoa, horri esker, taldeak, kirol-soziedade anonimoak eta irabazi-asmo bako erakundeak dagozalako. Horixe bera da jatorria, jatorria ez da beste bat. Halanda ze, lege hori ez da Bizkaiko Foru Aldundi honen arazoa, eta bermatu egin ahal deusut zergei buruzko arauak zorrotz ezarten jakezana Bizkaiko zergadun guztiei. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señor Iruarrizaga Artaraz. Punto undécimo del Orden del Día:

El Sr. **SECRETARIO SEGUNDO / BIGARREN IDAZKARI** jaunak:

11.- Examen, debate y votación, en su caso, del/de los escrito/s sobre:

Iniciativa Originaria: Pregunta oral en pleno ([R.E.11/E/2021/0001253](https://www.euzkadi.net/legislatura/11/E/2021/0001253))

11.- Hurrengo idatziari(ei) buruzkoak aztertu, eztabaidatu eta, halan bajagoko, bozkatzea:

Jatorrizko ekimena: Ahozko erantzun-eskea Osokoan ([11/E/2021/0001253SE](https://www.euzkadi.net/legislatura/11/E/2021/0001253SE))

Autor: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Asunto: Contaminación de la regata Zabala.

Documento

[\(R.E.11/E/2021/0001253\)](#)

Expediente: [\(11/B/25/0002204\)](#)

Principal:

Egilea: Arriola Alzola, Iratxe (EHB)

Gaia: Jatako zabortegiaren inguruan dagoen Zabala erreka.

Dokumentu Nagusia: [\(11/E/2021/0001253SE\)](#)

Espediente: [\(11/B/25/0002204\)](#)

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Señora Arriola Alzola, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Buenos días a todos/as. Como lo he planteado en otro punto del Orden del Día, creía que ya se retiraba hoy, pero, en cualquier caso, esta es la pregunta oral. El día 9 de febrero, la asociación Ecologistas en Acción denunció que, como consecuencia de las actividades del vertedero de Jata cuya titularidad corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, la basura se acumula en la regata de Zabala que se ubica junto al mismo. La pregunta consiste en qué medidas va a adoptar la Diputación Foral de Bizkaia para limpiar la contaminación de la regata de Zabala sita en el entorno del vertedero de Jata y para que no se vuelva a repetir esa situación. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / BATZORDEBURU** andreak: Muchas gracias a usted, señora Arriola Alzola. En el turno de réplica, señora Antxustegi Ziarda, tiene la palabra.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Muchas gracias, señora Presidenta. Buenos días a todos/as.

El vertedero de Jata, como todas las infraestructuras para la gestión de residuos dependientes de la Diputación Foral de Bizkaia, cuenta con la Autorización Medioambiental Integrada. Esa autorización fue otorgada por el órgano ambiental pertinente, el Gobierno Vasco, en este caso. Como saben, esa autorización consiste en una resolución que permite realizar una actividad con todas las garantías de protección del medioambiente y, a su vez, de protección de la salud de las personas.

Además, el vertedero de Jata cuenta con un Plan de Conservación Ambiental. Gracias a ese Plan, se realizan periódicamente los controles ambientales que son necesarios. En el marco de ese Plan de Conservación Ambiental, cada tres meses se toman muestras de las aguas superficiales y subterráneas, río arriba y río abajo, en la regata de Zabala, y se analizan. Como saben, esa regata está fuera del vertedero de Jata, y se encuentra río arriba. También se analizan los lixiviados que genera el vertedero. Podemos decir que hasta el momento todos esos análisis han sido correctos y que han determinado que la calidad de las aguas es la adecuada.

Quisiera subrayar lo siguiente, porque es importante: los resultados de todos los análisis que se han realizado han sido correctos, y determinan que la calidad de las aguas es la adecuada. Se da cumplimiento a los parámetros referenciales establecidos en el Real Decreto 817/2015, de 11 de septiembre, que establece los criterios para realizar el seguimiento y la evaluación del estado de las aguas superficiales, así como las normas relativas a la calidad medioambiental.

Habida cuenta de la denuncia que interpuso la asociación Ecologistas en Acción, tras recibir el día 11 de febrero una nota donde se indicaba que había plásticos en la

regata, se procedió a su inspección, y se verificó que había algunos plásticos en el tramo más cercano al vertedero, en una zona de poca visibilidad, que se retiraron inmediatamente. La cantidad de plásticos que se encontraron en esa zona no resultó significativa: se llenó una bolsa de plástico justo-justo.

A pesar de todo, se vio que más lejos, en una zona de poca visibilidad, había una serie de plásticos. Probablemente, se acumularon poco a poco en la zona, durante un tiempo, arrastrados por el caudal de la regata o, en ocasiones, por el viento que azota esa zona. Viendo en qué estado se encontraban esos plásticos, como he indicado, llevaban bastante tiempo en ese lugar. Allí, también se habían acumulado plásticos que difícilmente podían provenir del vertedero, conforme a la tipología de algunos de esos plásticos.

Respecto a la pregunta concreta que me ha planteado, se debe aclarar que no ha ocurrido ningún suceso contaminante. Así lo garantizan, como he comentado anteriormente, los análisis y las mediciones que se han llevado a cabo.

Además, desde septiembre de 2020, y para evitar expresamente esos movimientos ocasionales de plásticos, se ha elegido un sistema que utiliza material geotextil sintético para cubrir el vertedero. Como saben, es un vertedero final de Bizkaia, que no se utiliza desde septiembre del año pasado, tras utilizarlo durante siete meses. Se trata de láminas soldadas de polietileno de alta densidad, por lo que así se reduce el impacto de los fuertes vientos que azotan la zona de vez en cuando, evitando que los materiales depositados en el vertedero vuelen. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Antxustegi Ziardia. En el turno de réplica, señora Arriola Alzola, tiene la palabra.

La Sra. **ARRIOLA ALZOLA** andreak: Muchas gracias, señora Antxustegi, por su respuesta.

Es cierto que existen otras regatas que están mucho más contaminadas, también en HCH y lindano, en Portugalete, en Barakaldo, Asua, Ballonti. Existen muchas más, pero esto también tiene, aunque no se encuentre en los límites, tiene traza de HCH. Por ello, se solicitaron, y EH Bildu de Lemoiz, concretamente, solicitó en julio del año pasado, solicitó a Garbiker que realizara un análisis de lixiviados, lindano y organoclorados similares en las aguas superficiales y subterráneas del vertedero de Jata. Se trata de un análisis extra que no se realiza hoy en día. Supone un coste de 916 euros, para realizar cuatro análisis en muestras duplicadas. Por tanto, tampoco supone un gran coste.

EH Bildu no ha recibido ninguna respuesta al respecto, EH Bildu de Lemoiz, es decir, ¿por qué no se realiza un análisis complementario, a pesar de que se realiza todo lo que exige la ley? Eso se hace, así es. Lo dicho, existen otras regatas que están más contaminadas que esta, pero, a pesar de ello, hay cosas que se pueden hacer, y creo que sería importante llevarlas a cabo. Es más, nosotros/as también presentamos enmiendas en ese procedimiento presupuestario, donde planteábamos fijarnos en esas infraestructuras verdes y azules, y estas constituyen unas infraestructuras verdes y azules. ¿Por qué? Porque el agua, como si del corazón se tratara, son las venas de la regata, y pueden colapsarse. Desgraciadamente, las regatas de Bizkaia, a pesar de las leyes, no se encuentran en un estado óptimo, y es ahí donde queda mucho trabajo por hacer, y se puede hacer desde un punto de vista holístico. Es eso lo que pedimos.

Es cierto que esta regata de Zabala cumple con los parámetros, a pesar de que sí existe contaminación, y también hay trazas de lindano. Sin embargo, en general, señora

Antxustegi, lo que queremos decir es que deberíamos cuidar mejor las regatas y que, aunque se cumpla lo que se exige por ley, deberíamos hacer aún algo más, respondiendo de manera integral a nuestros retos. Para ello, insisto, creemos que el planteamiento de las infraestructuras verdes y azules constituye un instrumento adecuado para implantar una planificación consciente, basándonos en lo que entendemos sobre los numerosos servicios que nos proporciona la naturaleza y su funcionamiento. Por tanto, se trata también de una petición general, y, lo dicho, le agradezco su respuesta. Muchas gracias.

La Sra. **PRESIDENTA / LEHENDAKARI** andreak: Muchas gracias a usted, señora Arriola Alzola. En el turno de réplica, señora Antxustegi Ziarda, portavoz de la Diputación, tiene la palabra.

La Sra. **ANTXUSTEGI ZIARDA** andreak: Subrayo de nuevo que no ha habido contaminación y que, aparte de lo que les he explicado en mi intervención anterior, tras la denuncia interpuesta por la asociación Ecologistas en Acción, acudieron al vertedero dos inspectores/as de URA, Agencia Vasca del Agua, encargada de la vigilancia de la calidad de las aguas, analizaron el estado del vertedero y atravesaron la regata de Zabala río abajo. Esos/as técnicos/as comprobaron que las aguas estaban en buen estado, y no consideraron necesario realizar ningún análisis adicional. Lo que ratifica lo que he subrayado ahora y en mi primer turno de palabra.

Aunque no ha ocurrido ningún suceso contaminante y aunque los resultados de los análisis realizados siempre han sido excelentes, vamos a dar más pasos, para garantizar que en un futuro no surjan problemas de ese tipo. Así, vamos a mejorar las instalaciones para la gestión de lixiviados, implantando un sistema automatizado y un control remoto en los equipos de bombeo de lixiviados del vertedero. Esa automatización se llevará a cabo como última acción previa a la suspensión de la actividad en el último trimestre de 2020 y su recubrimiento temporal. De ese modo, se podrán controlar continuamente tanto los niveles de lixiviados como el movimiento, y se podrá prever cualquier tipo de problema antes de que surja. Muchas gracias.

Batzarra 11:25an amaitu da.

Se levanta la sesión a las 11:25 horas.